# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia | Iruñean, 1997ko urriaren 21a | 67 ZK.


**A U R K I B I D E A**


A SAILA:

**Foru Lege Proiektuak:**

—Nafarroako nekazaritza ustiategien erregistroari buruzko Foru Lege proiektua (4. or.).

—Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (12. or.).

E SAILA:

**Jabeldurak eta Mozioak:**

—Mozioa, Nafarroako Gobernuak basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko Foru Legea alda dezan eskatzen duena. Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (14. or.).

—Mozioa, Espainiako Gobernua premiatzen duena Amsterdameko itunaren Amaierako Aktari atxiki dakion, Komunitate Autonomoei subsidiariotasun printzipioa modu eraginkorrean aplikatzeari dagokionean. «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (15.or.).

—Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena txosten bat igor dezan, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe guztietan banakako armairuak jartzeko planarekin. Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (16. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Ondasun higigarrien zaharberritzea esleitzeko irizpideei buruzko galdera, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (17. or.).

—Gizarte Ongizate Departamentuko “Komunikazioak” izeneko 31480-4 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (18. or.).

—Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentuekin zerikusia duten hainbat gairen gainean, “Gizarte- eta osasun-balioespeneko lan-taldeei” buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (18. or.).

—“Azterlanak eta proiektuak” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (19. or.).

—“El Vergel” egoitzari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (20. or.).

—“Hirugarren adineko zentroen obra eta ekipamenduetarako transferentziak enpresei” izeneko 99006-0 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (20. or..).
—“Plan Gerontologikoa garatzeko ekintzak” izeneko 31300-0 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (21. or.).
—Mendaviako garraio publikoaren zerbitzuak duen egoerari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
—“Lupo Proiektua” fabrikatzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
—Belate eta Almandozko tunelak bukatzeari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (23. or.).
—“Nekazaritza ustiategien eraginkortasunaren hobekuntza” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).
—“Ureztalur berrietarako edo jadanik daudenak hobetzeko dirulaguntza” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (24. or.).
—“Errentamendu historikoak. Lursail-erosketa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).
—“Nafarroako Aratxea, Kalitatezko Haragia. 5b Plan Operatiboa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
—“Ustiategien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzak (Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Legea)” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (27. or.).
—“Komunalaren Defentsa. (LFA 9. art.)” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (28. or.).
—Zerga-erreformak Foru Ogasunari erakarriko dion dirubilketa-kostuari buruzko galdera, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak egina (29. or.).
—Kartoiaren fabrikazioan espezializatua dagoen SAICA enpresari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (30. or.).
—“Kooperatibek nekazaritza-produktuak biltegiratu eta eraldatzeko eraikinak egin, zabaldu edo hobetzeko dirulaguntzak” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (30. or.).
—“Lurzoru, etxebizitza eta eraikinen salmenta” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (31. or.).
—“Etxebizitzetarako jarduketetarako dirulaguntzak (jabetza eta alogera)” aurrekontu kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (32. or.).
—“Alogera-etxebizitzak sustatzeko jarduketak Tuterako hirigune historikoan” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (33. or.).
—“Hirigune historikoak birgaitzeko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoentzat dirulaguntzak” aurrekontu kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (34. or.).
—“Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea” aurrekontu kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (35. or.).
—Makina, aparatu eta instalazioak erabiltzeko aurrekontu-lerroa ezartzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (36. or.).
—“Kooperatibaz bestelako eraentzapeko nekazal industrializazio eta merkaturatzean inbertsioak egiteko dirulaguntza” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (36. or.).
—“Endekaturiko inguruen leheneratzea eta ingurugiro-eraginen zuzenketa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (37. or.).
—“Lurzoruen deskontaminazioa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (38. or.).
—“Naturguneak mantentzea eta habitat-ak hobetzea” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (39. or.).
—“Mehatxaturiko espezieak leheneratzeko planak” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (40. or.).

—"Naturguneak babesteko eta ibaiak leheneratzeko hitzarmenak" aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (41. or.).
—"Naturguneak babesteko eta ibaiak leheneratzeko hitzarmenak" aurrekontu-kontusailari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (42. or.).
—Artisau elikagaien produkzioari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (43. or.).
—Nekazaritza Elikaduraren Artisau Batzordea eratzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (44. or.).
—DBHko ikastetxe publikoetan talde bereziak sortzeari buruzko galdera, Isabel Arboniés Berjemo Foru Parlamentari andreak egina (44. or.).
—Paz de Ziganda ikastolak eskatutako eraikitze-laguntzei buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak egina (46. or.).
—"Santa Cecilia" sozietatea fundazio bihurtzeari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak egina (46. or.).

H SAILA:
**Bestelako Testu Arau-Emaileak:**
—Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailea 1998-2005 (47. or.).
—Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzen hezkuntza-sistema aztertzeko Batzorde Bereziaren osaketa, antolamendua eta jarduerari buruzko arauak (47. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

# Nafarroako nekazaritza ustiategien erregistroari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

"Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikuluak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1997ko urriaren 13an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako nekazaritza ustiategien erregistroari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako nekazaritza ustiategien erregistroari buruzko Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Nekazaritza, Abeltzantza eta Mendi Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1997ko azaroaren 10eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariek emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari."

Iruñean, 1997ko urriaren 16a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## Nafarroako nekazaritza ustiategien erregistroari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN ADIERAZPENA

Nekazaritzako politikak aplikatzeak galdatzen du, gero eta gehiago, Administrazio Publikoek nekazaritza arloa eta honen bilakaera objetibotasunez ezagutzeko behar dituzten datu estatistikoei buruzko informazio aski izatea, nekazaritza eta abeltzaintza antolatzeko eta haien planifikazio ekonomikoa egiteko.

Laguntzen tramitazioa gero eta konplexuagoa da, bai Europako Batasunak finantzatuak, bai nazionalak eta autonomikoak ere eta, hortaz, beharrezkoa da nekazaritza ustiategien eta haien titularren ezaugarriak zehatz-mehatz ezagutzea. Horrek berekin dakar beste hauek ere jakitea: ustiategiaren orientabide tekniko-ekonomikoa (O.T.E.), titularraren dedikazioa, erabiltzen den eskulana, ustiatze errenta, etab.

Beraz, nahitaezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat nekazaritza ustiategiak definitzeko tresna bat sortzea eta ezarritako onurak emateko lehentasunezko irizpideak jartzea, Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak antolatzeko eta planifikatzeko politika eraginkor eta koherente baten barrenean.

Bestalde, ekonomia antolatzeko eta haren plangintza orokorra koordinatzeko behar diren oinarriak edo neurriak arautzeko dituen eskumenen arabera, Estatuak diktatu du nekazaritza ustiategien gaurkotzeari buruzko oinarrizko legeria, uztailaren 4ko 19/1995 Legean bildua dagoena. Lege horretan bildu dira, orobat, beste eskumen titulu batzuetan oinarriturik, errentamentuen legezko araubidearen aldaketa eta landa finka batzuen zatiezintasuna, beste xehetasunen artean. Bertan ezarri da, halaber, lehentasunezko ustiategiei zenbait onura fiskal ematea. Horren aplikazioa Nafarroako foru tributu araubidearen menean dago, aipatu Legearen Azken Xedapenetan bigarrenaren arabera, abuztuaren 10eko 13/1992 Lege Organikoaren 45.2 artikuluari jarraikiz.

Bada, nekazaritzan eta abeltzaintzan Nafarroak dituen eskumenak abiapuntu harturik eta bere tributu eta zerga araubidearen gainean, Foru Lege honek gure Komunitateko nekazaritza arloa susta-

tzeko eta antolatzeko bi bide ezartzen ditu: Nekazaritza ustiategien Erregistroa, Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintza ezagutzeko tresna administratibo gisa, gerora arlo horiei laguntzeko arrazoizko politika baten plangintza egin ahal dadin, eta guztiondako legeriak ezarritako zerga onurak zabaltzea, eta hobetzea, behar bada, Nafarroako nekazariei eta, batez ere lehentasunezko nekazaritza ustiategiei eta nekazari gazteei.

Foru Legea lau Titulutan eratu da:

* Atariko Tituluak Foru Legearen xedeak ezartzen ditu, baita haren aplikazio eremua ere, gehienbat Foru Komunitatearen lurraldean diren nekazaritza ustiategi guzitara hedatzen dena.

* I. Tituluak Nafarroako Nekazaritza ustiategien Erregistroaren baldintzak eta betebeharrak finkatzen ditu. Bertan lehentasunezko nekazaritza ustiategien katalogoa eta nekazari gaztearen izaera bereizten dira, lehenik, eta gainerako nekazaritza ustiategien katalogoa, gero. Erregistroan sartzea aldeak halaxe eskatuta egiten da; hala ere nahitaezkotzat jotzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura diren onura eta laguntzak jaso ahal izateko. Jasotako datuen pribatutasuna bermatua dago.

* II. Tituluak lehentasunezko nekazaritza ustiategiek, familian nahiz elkar lanean landuek, behar dituzten ezaugarriak ezartzen ditu.

* III. Tituluan ondoko hauek finkatzen dira: nekazaritza ustiategiendako Nafarroan ezarri diren sustapen laguntzak jasotzeko lehentasunak, jabetza hartzeko zerga onurak, batez ere gazteentzat, arloa gazteagotzeko; horregatik ematen zaio indar lehenbiziko instalazioari. Azkenik, zerga araubide berezia ezartzen da landa finken eta nekazaritza ustiategien eskualdatzeak dakartzan ondare handitzeetarako.

## ATARIKO TITULUA
## Xedapen Orokorrak

**1. artikulua.** Xedea.

Foru Lege honen xedeak ondoko hauek dira:

a) Nekazaritza ustiategien Erregistroa sortzea, behar den informazioa jarraian, integratua eta eguneratua eskuratzeko tresna publiko gisa, Nafarroako nekazaritza arloa antolatzeko eta haren plangintza ekonomikoa egiteko, nekazaritza egiturak gaurkotzeko politika egokia garatzeko, baita informazio orokorreko ondorio estatistikoetarako ere.

b) Nafarroako nekazaritzako ustiategien ezaugarriak definitzea.

c) Laguntza publikoak jasotzerakoan lehentasuna izateko nekazaritza ustiategiek behar dituzten baldintzak zehazteko datuak izatea.

d) Nekazarien elkarteratzea bultzatzea, nekazaritza ustiategiek behar adinako neurriak izan ditzaten.

e) Nekazari gazteen sarrera erraztea, ustiategi bideragarrien titular gisa.

f) Lurraren merkatuaren mugikortasuna areagotzea, bai jabetzan, bai errentamenduan.

g) Lehentasunezko nekazaritza ustiategiei aplikatu ahal zaizkien zerga onuren markoa ezartzea.

**2. artikulua.** Ezarpen eremua.

Foru Lege hau gehienbat Foru Komunitatearen lurraldean diren nekazaritza ustiategiei aplikatuko zaie.

**3. artikulua.** Definizioak.

Foru Lege honen ondorioetarako, ondoko hauek dira definizioak:

1. Nekazaritza jarduera: nekazaritzako, abeltzaintzako eta oihangintzako produktuak eskuratzeko behar den lan multzoa.

2. Nekazaritza ustiategia: nekazari produktuak sortu eta batez ere horiek merkaturatzeko asmoz titularrak nekazari jardueran enpresen gisara antolatutako ondasun eta eskubideen multzoa, beti ere unitate tekniko-ekonomikoa osatzen badu.

3. Ustiategiko elementuak: landa ondasun higiezinak eta nekazaritzan jarraian aprobetxatzen diren beste guziak; bizitetxea bere tegiekin; ustiategian eta berari lotuak diren nekazaritzako eraikin eta instalazioak, baita industriakoak ere, eta aziendak, makinak eta lanabesak, horien aprobetxamendua eta erabilera titularrari badagozkio jabetzan, errentamenduan, erabiltzeko eta gozatzeko eskubidean edo jabeak titularrari utzitakoak badira. Ustiategiko elementuak dira, orobat, titularrari dagozkion eta ustiategiari lotuak dauden eskubide eta betebehar guziak.

4. Ustiategiaren titularra: nekazaritzan dihardueen pertsona fisiko edo juridikoa, ustiategia osatzen duten ondasun eta eskubideak enpresa irizpideez baliatuz antolatzen baditu eta ustiategiaren kudeaketak dakartzan arrisku zein erantzukizun zibil, fiskal eta sozialak bere gain hartzen baditu.

5. Nekazari profesionala: nekazaritza ustiategi baten titularra den pertsona fisikoa, bere guzirako errentaren 100eko 50 gutxienez nekazaritza jardueretatik eta beste jarduera osagarrietatik atera-

tzen badu, beti ere bere ustiategian egindako nekazaritza jardueratik zuzenean ateratzen duen errenta-partea nekazariaren guzirako errentaren 100eko 25ekoa bada gutxienez eta nekazaritza jardueretan edo osagarrietan emandako denbora lanean guzira emandakoaren erdia baino handiagoa bada.

Ondorio horietarako, hurrengo hauek dira jarduera osagarriak: titularrak, hauteskunde publikoan aukeratua izateagatik, ordezkariz osatutako erakundeetan parte hartzea eta bertan egotea, baita sindikatu, kooperatiba eta profesionalen ordezkaritza organoetan ere, nekazaritza arloarekin loturik badaude. Orobat bere ustiategiko produktuak eraldatzeko eta zuzenean saltzeko jarduerak, naturguneak kontserbatu eta ingurugiroa babestekoak eta bere ustiategian egiten diren jarduera turistiko, ehizako eta eskulanekoak.

6. Nagusiki nekazaria: bere guzirako errentaren 100eko 50a gutxienez bere ustiategian egindako jardueratik ateratzen duen nekazari profesionala, ustiategiarekin zerikusirik ez duten jardueretan emandako denbora lanaldi osoaren erdia baino txikiagoa bada.

7. Nekazari gaztea: hemezortzi urte beteak izanik oraindik berrogei bete ez dituen pertsona eta nekazaritzan jardun edo jarduteko asmoa duena.

8. Lur gutxiko nekazaria: bere nekazaritza ustiategia neurri europarreko (NEU) 12 unitate baino gutxiagokoa duen nagusiki nekazaria, guzirako errenta abiapuntu errentaren 100eko 75aren adinakoa edo txikiagoa badu.

9. Lanaldi partzialeko nekazaria: nekazaritza ustiategi baten titularra den pertsoan fisikoa. Ustiategian ez du lanaldiaren bostena baino gutxiago sartu behar, ezta lanaldi osoaren erdia baino gehiago.

10. Nekazaritzako lan unitatea: nekazaritzan lanaldi osoan eta urtebeteko epean pertsona batek egindako lana.

11. Lan-errenta bateratua: lan unitateari esleitzen zaion nekazaritza ustiategiak sortutako etekin ekonomikoa, zeina ateratzen baita ustiapenaren marjina garbia edo soberakina gehi ordaindutako lansarien zenbatekoa zati ustiategian emandako lan unitateen kopurua eginez.

12. Abiapuntu errenta: Espainian nekazaritzan aritzen ez diren langileen urteko batez besteko lansari gordina. Lansariaren zenbatekoa Europako Batasunaren arautegiari jarraikiz eta Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako lansarien arabera zehaztuko da.

## LEHENBIZIKO TITULUA
## Nafarroako nekazaritza ustiategiaren erregistroa

**4. artikulua.** Sorrera.

1. Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa sortzen da, Foru Lege honetan finkatutako baldintza eta ondorioekin.

2. Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa zerbitzu administratibo eta doako gisa eratu da. Bere xedeak dira Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza ustiategiak inskribatzea, lehentasunezkoak diren edo ez diren zehaztea eta lehentasunezkoei egiaztagiriak ematea, Foru Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako.

3. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dagokio Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroaren kudeaketa.

4. Nekazaritza ustiategietako datuei dagokienez, Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 37 artikuluan ezarritakoei jarraituko zaie.

**5. artikulua.** Inskriba daitezkeen egintzak.

1. Erregistroan inskribatuko dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza ustiategiak, beraien titularra edozein dela ere.

b) Ustiategian ematen diren funtsezko aldaketak.

2. Inskripzioan ondoko hauek aipatuko dira:

a) Ustiategiaren titularra edo titularrak eta beraien nortasun identifikazioa edo talde edo sozietatea eratu zeneko agiria, titularrak nortasun juridikoa badu.

b) Titularraren edo titularren lanbide kualifikazioa, zein famili ustiategia izan, zein kideena, ustiategi elkartua bada.

c) Gizarte segurantzaren afiliatua izatearen agiria, zein famili ustiategia izan, zein kideena, ustiategi elkartua bada.

d) Ustiategiaren ezaugarri orokorrak, bere egoera eta ustiapen orientabidea.

e) Berari lotutako lurrak, edozein dela ere edukitza erregimena, ondoko hauekin: katastroko identifikazioa, azalera eta izaera, ureztalurra nahiz lehorrekoa, belardia nahiz oihana, larrea nahiz arboladia.

f) Nekazaritzako eraikin eta instalazioak, baita industri izaera dutenak ere.

g) Bizitetxea bere tegiekin.

3. Inskripzioa egiterakoan eta prozedura aiseago gauzatzeko, Nafarroako nekazaritza ustiategiei buruz Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan diren datuak erabiliko dira.

4. Erregistroaren ondorioetarako, funtsezko aldaketak ondoko hauek izanen dira:

a) Nekazaritza jardueran baja ematea.

b) Ustiategiaren titularitatean izaten diren aldaketak.

c) Ustiatze elementuetan izaten diren aldaketak.

d) Aldaketak hurrengo hauetan: titularitate motak, kokapena, lekua eta ustiategiaren mugaketa.

e) Kapital sozialean edo organo erabakiorretako ordezkaritzan diren aldaketak. Orobat ustiategi elkartuetako kudeaketan eta administrazioan direnak.

f) Langileen zerrendako aldaketak.

g) Ustiatze orientabidean izaten den aldaketa.

**6. artikulua.** Inskripzioaren sustatzailea.

1. Nekazaritza ustiategi bat Erregistroan inskribatzea ustiategiaren titularrak edo haren ordezkariak halaxe eskatuta eginen da.

2. Nekazaritza ustiategia behin inskribatuz gero, ustiategiaren titularrak nahitaez adierazi beharko dizkio Erregistroari ustiategian gertatzen diren funtsezko aldaketak.

**7. artikulua.** Nahitaezko inskripzioa.

Aurreko artikuluaren 1. idazatian ezarritakoa gora-behera, nahitaez sartu beharko da Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan, edo, behar bada, sartzea eskatuko da, arauz galdatutako dokumentazioa osatua denean, hurrengo hauetarako:

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura nekazaritza arloa babesteko Foru Komunitateko Administrazioak ezarriak edo ezarriko dituen laguntzak edo Foru Lege honetan finkatutako onurak eskuratzeko.

b) Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legearen 3. artikuluko c) idazatian definitutako xedeak lortzeko Foru Komunitateko Administrazioak ezarri dituen laguntzak jasotzeko.

**8. artikulua.** Erregistroko liburuak.

1. Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroak liburu hauek beharko ditu:

a) Egunkaria.

b) Lehentasunezko Nekazaritza Ustiategien inskripzioarena: bertan idatziko dira izaera hori dutenak, Foru Lege honetan xedatutakoaren arabera. Titularra edo titularkidea nekazari gaztea denean aipamena eginen da.

c) Nekazaritza Ustiategien inskripzioarena: bertan bilduko dira aurreko idazatiko ezaugarriak ez dituzten nekazaritza ustiategiak.

2. Nafarroako Gobernuak arauz zehaztuko du Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua, eta Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa osatzen duten Liburuak errazago betetzeko informatika sistemen aplikazioa, Zuzenbidean onartua, bultzatuko du.

3. Lehentasunezko Nekazaritza Ustiategien Liburua mantentzeko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, aldez aurretiko baimen pertsonala duela, Departamentuan eta Ekonomi eta Ogasunekoan diren datuak erabili ahalko ditu Erregistrokoak ez diren eskumenen jardueran.

## II. TITULUA
## Lehentasunezko ustiategiak

**9. artikulua.** Lehentasunezko ustiategiak.

Foru Lege honetako 10. eta 11. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten famili ustiategiei, eta, behar denean, ustiategi elkartuei, nekazaritzako lehentasunezko ustiategi izaera emanen zaie Erregistroan inskribatze ondorioetarako eta Foru Lege honetan ezarritako onurak jaso ahako dituzte.

**10. artikulua.** Famili ustiategiak edo titulartzat pertsona fisikoak dituztenak.

1. Lehentasunezko ustiategitzat hartzeko, famili ustiategiek edo titulartzat pertsona fisikoak dituztenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Ustiategiak, gutxienez, nekazaritzako lan unitate bat hartu behar du.

b) Nekazaritza ustiategitik eskuratzen den lanerrenta bateratua abiapuntu errentaren 100eko 35 eta 120 artean egotea, Foru Lege honen lehenbiziko xedapen iragankorrean ezarritakoa ukatu gabe.

c) Titularra nagusiki nekazaria izatea edo nekazari profesionala, Foru Lege honen 3. artikuluko 5. eta 6. idazatietan ezarritakoaren arabera.

d) Nekazaritzarako gaitasun aski izatea. Hori zehazteko prestakuntza aktiboa eta lanbidean den esperientzia izanen dira kontuan.

e) Hemezortzi urte beteak izatea eta hirurogeita bost oraindik ez.

f) Gizarte segurantzako autonomo edo norberaren kontuko langileen Araubide Berezian alta emana izatea, bere nekazaritzako jarduera dela medio.

g) Nafarroan helbideratua egotea edo Erkidego Autonomo mugakideen lurraldearen antolamenduari buruzko legeria autonomikoan, mugako eskualdetzat jotzen den batean. Helbideratze baldintza honek ezinbesteko kasuak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Etxebizitza Departamentuak onartutako beharra ditu salbuespen.

2. Ezkontza kasuan ustiategiaren titulartasuna bi ezkontideena bada, lehentasunezko gisa hartzeko, aski izanen da ustiategiak eta ezkontidetako batek artikulu honetan finkatutako baldintzak betetzea.

3. Nekazaritza ustiategiak jaraunspen-komunitate batenak izan eta haien gainean sei urtetarako bederenik zatiezintasun ituna badute lehentasunezko ustiategitzat hartuko dira, ustiategi horiek eta komunitateko kideren batek, gutxienez, artikulu honetan finkatutako baldintzak betetzen badituzte. Zatiezintasun aldia lehentasunezko ustiategi deklaratzetik aurrera zenbatuko da.

**11. artikulua.** Nekazaritzako ustiategi elkartuak.

1. Lehentasunezko ustiategitzat hartzeko, nekazaritzako ustiategi elkatuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Sozietate kooperatiboaren, Nekazaritzako Eraldakuntza Sozietatearen edo sozietate zibilaren, lan sozietatearen edo merkataritzako beste baten forma juridikoa izatea. Nolanahi ere sozietate zibilen, lan sozietateen edo merkataritzakoen xede bakarra, titulartasuna duten ustiategietan nekazaritzan jardutea izanen da.

b) Sozietate anonimoen kasuan, akzioek izendunak behar dute izan eta kapital sozialik badago, 100eko 50 baino gehiago nagusiki nekazariena edo nekazari profesionalena.

c) Ustiategiak, gutxienez, nekazaritzako lan unitate bat hartu behar du eta bertan eskuratzen den lan-errenta bateratua abiapuntu errentaren 100eko 35 eta 120 artean egon.

d) Kideen 100eko 50 gutxienez nekazari profesionalak izatea edo nagusiki nekazariak, aurreko artikuluaren 1. zenbakiaren f) letran aipatutako baldintza betetzen dutenak. Hori ez bada, kudeaketaren eta administrazioaren ardura duten kideetatik bi herenak lanari eman beharreko denbora eta nekazaritzako lan ustiategiko errenten jatorriari dagokionez, nagusiki nekazariari edo nekazari profesionalari eskatzen zaizkion baldintzak betetzea, baita lehentasunezko famili ustiategietako titularrei edo ustiategi horietako titular diren pertsona fisikoei, aurreko artikuluko 1. idazatian aipatu direnei, eskatzen zaizkien baldintzak ere. Era berean, ustiategi horretako lanaren bi heren, gutxienez, lehen aipatutako baldintzak betetzen dituzten kideek egin behar dute.

2. Lehentasunezko ustiategi elkartutzat hartuko da, baita ere, ustiategi baten bi heren, gutxienez, muga bakarraren barrenean dituen ustiategia, baldin kide bakar batek ez badu ustiatze azaleraren ehuneko 40 baino gehiago. Ustiategi hauetan kide batek bederenik nagusiki nekazari behar du eta lan horretara emana. Horretaz gain, famili ustiategietako titularrei edo nekazaritza ustiategietako titular diren pertsona fisikoei eskatzen zaizkien baldintzak, 10. artikuluan aipatu direnak, bete beharko dituzte.

3. Halaber, lehentasunezko nekazaritza ustiategitzat hartuko da titularkide nekazari gazte bat duena, baldin ustiategi haietako titularrei eskatzen zaizkien baldintzak pertsonalki betetzen baditu.

**12. artikulua.** Inskripzioaren egiaztagiria.

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduak, interesatuak halaxe eskatuta, ustiategia Nafarroako Nekaritza Ustiategien Erregistroan sartu izanaren egiaztagiria luzatuko du.

2. Egiaztagiria beharrezko izanen da Foru Lege honetan finkatutako onurak eskuratzeko, baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Aurrekontu Orokorren kargura nekazaritza alorra babesteko ezarri edo ezarriko dituen laguntzak jasotzeko ere.

**13. artikulua.** Nekazari gazteak.

1. Lehentasunezkotzat joko da nekazari gazteen lehenbiziko instalazioa, Nekazaritzako Finantzazioari buruzko lege lerruneko xedapenen Testu Birbildua onetsi zuen apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegileari eta hura garatu duten arauei jarraikiz, nekazaria lehentasunezko nekazaritza ustiategi bateko titularra edo titularkidea bada.

2. Era berean 14. artikuluaren 1. zenbakiko d) idazatiak aipatzen dituen kuoten asignazioan eta ekoizpen eskubideetan lehentasuna izanen dute gainerako lehentasunezko ustiategien ondoan, lehenbiziko instalazioarekin lehentasunezko ustiategietako titularrak edo titularkideak diren gazteek.

## III. TITULUA
## Onurak

**14. artikulua.** Lehentasunezko egoerak.

1. Lehentasunezko ustiategietako titularrek lehentasunezko tratua izanen dute honako kasuotan:

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ezarrita dagoen edo ezar daitekeen edozein laguntzatan.

b) Fondo publikoekin diruz lagundutako nekazaritzako aseguruen kontratazioetan.

c) Nekazaritzako ekoizpenen antolamendurako programetan edo berariazko lurralde eremukoetan sartutako laguntzen kasuan, beti ere hori bateragarria baldin bada programa horien helburuekin.

d) Merkatuko erakunde komun ezberdinen arautegi erregulatzailea aplikatu edo garatzearen ondorioz eraturiko kuota edo eskubideen esleipenean, beti ere bat etorriz arau horietan horretarako ezarritako baldintzekin, hori guztia, esleitzen diren kuota edo eskubideak, osotara edo zati batean, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura eskuratzen direnean eta Foru Komunitateko Administrazioari dagokionean horiek esleitzea.

e) Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legearen 3. artikuluaren c) idazatian zehazturiko helburuak lortzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezarrita dituen edo ezar ditzakeen laguntzetan edo Foru Lege horren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusia dagoen lur fondoan sartzearen kasuan.

2. Aipatu diren lehentasunezko egoerek baldintza bat izanen dute, alegia, ustiategiak ezin izanen duela lehentasunezko izaera galdu aurreko atalean azalduriko neurriak aplikatzeagatik; gainera, neurri hauek aplikatzearen ondorioz lehentasunezko izaera lortzen duten ustiategietako titularrak ere horietaz baliatu ahalko dira.

**15. artikulua.** Maileguak.

Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga arautzen duen 1981eko martxoaren 17ko Foru Arauaren 22. artikuluko 2. zenbakiak aipatzen duen “Egintza Juridiko Dokumentatuak” kontzeptutik salbuetsiak egonen dira honako hauek: Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako mailegu hipotekarioen eratzea, aldatzea edo kitatzea dokumentatzen duten eskritura publikoen lehenbiziko kopiak, beti ere mailegu horiek ematen baldin bazaizkie lehentasunezko ustiategietako titularrei hobekuntza planak egiteko, lehentasunezko ustiategiak ez izan arren maileguz finantzaturiko eskurapenei esker izaera hori lortzen duten ustiategietako titularrei, eta nekazari gazteei edo soldatapekoei nekazaritzako ustiategi bat lehen aldiz instalatzeko aukera izan dezaten.

**16. artikulua.** Ustiategia osorik eskualdatzea.

1. Nekazaritzako ustiategi oso baten erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufruktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, “inter vivos” edo “mortis causa” eskualdatu edo eskuratuz gero, beti ere hori egiten bada lehentasunezkoa den edo eskurapenaren ondorioz izaera hori lortzen duen beste ustitategi bateko titularraren alde edo halako titular bat izanik egilea, orduan, eskualdatze edo eskuratze horrek 100eko 90eko murrizketa izanen du ustiategiaren edo hori osatzen duten elementuen eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergaren zerga-oinarrian, hori guztia, baldin eta, eskualdatzearen ondorioz, eskuratzailearen ustiategiak duen lehentasunezko izaera aldatzen ez bada. Ustiategiaren eskualdaketa eskritura publiko bidez egin behar da.

Murrizketa 100eko 100era iritsiko da, baldin eta ezkontide superstiteak ustiategiarekin jarraitzen badu edo eskuratzailea nekazari gaztea edo soldatapekoa bada, eta bi kasuetan, eskualdaketa edo eskuratzea lehenbiziko instalazioaren ondoko bost urteen barnean egiten bada.

Zenbaki honetako lehen lerroaldean aipatu ondorioetarako, nekazaritzako ustiategi osoaren eskualdaketa egiten dela ulertuko da, baita etxebizitza kanpoan uzten denean ere.

2. Murrizketa gauzatu ahal izateko, hori azaldu beharko da eskuratzearen eskritu publikoan eta Jabetza Erregistroan, baldin eta eskualdaturiko finkak erregistro horretan inskribatuta bazeuden. Eskuraturiko finkak hurrengo bost urteko epean besterendu, errentan eman edo lagatuko balira, aldez aurretik honakoen justifikazioa egin beharko litzateke: dagokion zerga ordaindu izanarena, edo egindako murrizketaren ondorioz ordaindu gabe geldituako horren zatiarena, bai eta berandutze interesena ere, salbuespen izanik ezinbesteko kasuak, heriotza, elbarritasuna edo titularrak jarduera uztea jubilatu delako bai adinarengatik, bai arauz ezarrita dagoen beste edozein arrazoirengatik.

**17. artikulua.** Muga bakar baten barneko ustiategia osatzeko eskualdaketa.

1. Landa finken erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufruktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, “inter vivos” edo “mortis causa” eskualdatu edo eskuratuz gero, baldin eta hori egiten bada lehentasunezko ustiategi bat eratzeko asmoz muga bakar baten barnean horretarako beharrezkoa den azalera biltzeko, orduan, eskualdatze edo eskuratze hori salbuetsia egonen da eskualdatzeen edo eskuratzeen gaineko zergatik, hori guztia, baldin eta eskuratzeari buruzko agiri publikoan azaltzen bada egindakoaren ondorioz geratzen den finka ezin izanen dela zatitu bost urteko epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

2. Eskualdaketaren edo eskuratzearen gaineko zergari dagokion zerga-oinarrian 100eko 50eko murrizketa aplikatuko da honako kasuan: nekazaritzako ustiategien titularrek lurren eskualdatzea edo eskuratzea egiten dutenean muga bakar baten barnean biltzeko ustiategi bateko azaleraren 100eko 50a gutxienez, beti ere horri dagokion lan-errenta bateratua Foru Lege honek ezarritako mugen barnean baldin badago, hori guztia, lehentasunezko ustiategietarako zerga onurak ematearen ondorioetarako. Murrizketa hori aplikatu ahal izateko, arestiko artikuluan zatiezintasunaren eta eskuratzeari buruzko agiri publikoaren gainean ezarritako baldintzak bete beharko dira.

**18. artikulua.** Ustiategi eta landa finketako zati batzuen eskualdaketa.

1. Landa finka baten edo nekazaritzako ustiategi bateko zati baten erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufruktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, “inter vivos” edo “mortis causa” eskualdatu edo eskuratuz gero, beti ere hori egiten bada eskurapenaren ondorioz lehentasun izaera galtzen ez duen edo lortzen duen lehentasunezko ustitategi bateko titularraren alde, orduan, 100eko 75eko murrizketa aplikatuko da eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergaren zerga-oinarrian.

2. Murrizketari portzentaiaren araberako hamar puntu gehituko zaizkio eskuratzailea soldatapeko nekazaria denean, eta 100eko 100era iritsiko da nekazari gaztea izanez gero eta, bi kasuetan, eskualdaketa edo eskuratzea lehenbiziko instalazioaren ondoko bost urteen barnean egiten bada.

3. Onura aplikatu ahal izateko, eskualdaketa eskritura publiko bidez egin beharko da, eta 16. artikuluko 2. idazatian ezarritakoa aplikatuko da.

**19. artikulua.** Landa finken trukatzea.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak landa finken gainean baimentzen dituen borondatezko trukeak salbuetsiak egonen dira Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako “kostubidezko ondare eskualdaketak” kontzeptutik edo Balio Erantsiaren gaineko Zergatik, beti ere, trukea egiten dutenetako bat, gutxienez, lehentasunezko nekazaritza ustiategi bateko titularra baldin bada eta trukeak -zein eskritura publiko bidez egin behar baita- helburu hauetakoren bat baldin badu:

a) Lurzati kokatuak deuseztea; horrelakoak dira nekazaritzako erreforma eta garapenari buruzko legeria orokorrean izaera hori dutenak.

b) Bide menpekotzak kentzea.

c) Nekazaritzako ustiategiak berregituratzea; kasu honetan sartzen dira lurzati berrantolamendu pribatu bat gauzatzeko egin behar diren truke anizkoitzak.

**20. artikulua.** Erregistroan inskribatzea.

Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako “kostubidezko ondare eskualdaketak” kontzeptuko zerga-oinarrian 100eko 90eko murrizketa izanen dute honakoek: jabetza espedienteek, ezaguntasun aktek eta lehentasunezko ustiategi batean integraturiko finkak edo halako ustiategi bat osatu ahal izateko integratzen direnak Jabetza Erregistroan inmatrikulatzeko edo etendako erregistro traktoari berrekiteko erabiltzen den beste edozein prozedurak.

Murrizketa hau 100eko 100era iritsiko da aipatu finken titularra nekazari gaztea denean.

**21. artikulua.** Lehentasunezko ustiategi elkartuendako zerga onura bereziak.

1. Amortizazio askatasuna izanen dute nekazaritzako jarduerei loturiko higiezin material eta inmaterialen elementuek, baldin eta lehentasunezko ustiategi izaera lortzen den egunaren ondoko lehen bost urteetan eskuratuak badira.

2. Ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen arabera bereziki babesturiko nekazaritza kooperatiba gisa eratuta dauden lehentasunezko ustiategi elkartuen kasuan, Sozietateen gaineko Zergaren barnean kuota osoaren hobaria, Zerga horren 28.2 artikuluan aurreikusia, 100eko 80koa izanen da.

**22. artikulua.** Nekazari gazteendako edo soldatapeko nekazariendako zerga onura bereziak.

Foru Lege honen 15, 16 eta 18. artikuluetan aurreikusitako zerga onurez gain, nekazari gazte-

ek edo soldatapeko nekazariek beste hauek ere izanen dituzte:

1. Nekazaritzako ustiategi baten edo horren zati baten zein landa finka baten erabateko jabetza edo bizi bitarteko usufruktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, “inter vivos” edo “mortis causa” eskualdatu edo eskuratuz gero, beti ere hori egiten bada lehentasunezko ustitategi bat lehen aldiz instalatzen duen nekazari gazte edo soldatapeko nekazari baten alde, orduan, salbuetsia egonen da eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergatik.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jarduerako etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoa erabiliz zehazten duten nekazari gazteek edo soldatapeko nekazariek, beren nekazaritza jarduerari dagokiona 100eko 25ean murriztu ahalko dute, lehentasunezko ustiategi bateko titular gisa lehen aldiz instalatu ondoko bost urteetan itxitako zergaldietan, baldin eta ustiategia hobetzeko plan bat egin izana egiaztatzen badute. Arestian aipatu instalazioa Foru Lege honen 10. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egina izanen da.

Aurreko lerroaldean aipaturiko etekin garbia, zenbatespen objektiboaren metodoari buruzko arauak aplikatzearen ondoriozkoa izanen da soilik.

Zenbaki honetan aurreikusitako murrizketa zeinu, indize edo moduluen modalitatean aplikatuko da nekazaritzako jarduerari dagokion etekin garbiaren gainean, eta koefizienteen modalitatean, berriz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duen ekainaren 8ko 209/1992 Foru Dekretuko 28. artikuluak aipaturiko gastuak kendu eta gero; murrizketa hau bateraezina da aipatu artikuluan zerbitzuak ematearen arloko merkataritza jardueretarako, nekazaritza, abeltzaintza, oihan-lan eta arrantzakoetarako oro har ezarrita dagoenarekin.

### Xedapen Gehigarriak

**Lehenengoa.** Foru Lege honen 15. artikulutik 22.era bitartekoetan aurreikusiak dauden zerga onurak honako irizpideei jarraikiz baizik ez dira aplikatuko: Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikuluan azaltzen den Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako irizpideak.

**Bigarrena.** Nekazaritzako Ustiategiak gaurkotzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legearen 16. artikuluko 1. idazatian xedatutakoari jarraikiz, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioan dagoen Lehentasunezko Ustiategien Katalogo Orokorrean sartzearren, aldian-aldian Ministerioari jakinaraziko zaio Nafarroan lehentasunezko moduan sailkatu diren nekazaritza ustiategiak eta horien aldaketak zeintzuk diren.

### Xedapen Iragankorrak

**Lehenengoa.** 1998ko abenduaren 31 arte nekazaritzako famili ustiategi hauek lehentasunezko izaera izan ahalko dute: lan-errenta bateratua abiapuntu errentaren 100eko 30etik gorakoa eta 100eko 120tik beherakoa izanik, nekazaritza laneko unitate erdia, gutxienez, okupatzeko aukera dutenek, Foru Lege honen 10. artikuluan ezarritako gainerako baldintzak betetzeaz gainera.

**Bigarrena.** Foru Lege honek indarra hartu eta hurrengo bost urteko epean azaltzen diren ondareko gehikuntza garbiak -landa finkak edo nekazaritzako ustiategiak eskualdatzearen ondorioz sortuak-, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zenbatespen objektiboaren metodoa aplikatzearen ondoriozko etekin garbian sartuko dira, arauz ezarritako zenbatekoarekin eta, beti ere, aktiboak subjektu pasiboaren ondarean bost urtez, gutxienez, egon badira.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izanen da eskualdaturiko landa finkak edo nekazaritzako ustiategiak eskuratzaileak lehentasunezko ustiategiak eratu edo finkatzeko erabiltzea, edo Administrazio Publikoek eskuratzea lur bankuetan edo antzeko organoetan sartzeko, edo naturguneak babesteko arrazoiengatik.

Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez garatuko ditu bai eskualdaketa egiten dutenek bai eskuratzaileek bete behar dituzten baldintzak, Xedapen honetan ezarritakoaren aplikaziorako.

### Azken Xedapenak

**Lehenengoa.** Baimena eman zaio Nafarroako Gobernuari, Foru Lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru Lege honek :bon.ean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Hala ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren arloko zerga onurak aplikatuko zaizkie Foru Lege honek indarra hartu ondoren amaitzen diren zergaldiei.

**Hirugarrena.** Indarrik gabe gelditu dira Foru Lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

# Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektua

*AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen da. Proiektu hori 1997ko irailaren 15eko 61 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 6a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## OSOAREKIKO EMENDAKINA

**«EZKER ABERTZALEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioak: Legearen xedean eta aplikazio esparruan Foru Lege proiektu honek xede dituen turismo enpresa eta jardueren kontzeptu, sailkapen eta motak azaldu beharko lirateke, haiek xeheki definituz, argi eta garbi gelditu dadin zein den Foru Lege proiketuaren hartzailea, bai turismo enpresa eta jarduerentzat, bai Foru Administrazioarentzat berarentzat eta Udalentzat, bai eta, oro har, herritarrentzat ere, ikusirik gainera, turismo eskaintza gero eta zabalagoa dagoela (hotelak, ostalak, pentsioak, apartamentuak, kanpinak, aterpetxeak, kanpaldiak egiteko lekuak, landa etxeak, udako kanpamenduak, ikasleentzako udalekuak eta abar...).

Udalak, Foru Lege proiektu honetatik kanpo gelditzen dira praktikan, izan ere disziplina ahalmena duten bakarrak Zuzendari Nagusia, Kontseilaria edo/eta Nafarroako Gobernua direlako eta udal administrazioak aintzat hartzen direlako soilik erabakiak betetzeko orduan. Praktikan, ordea, udalek gero eta turismo enpresa edo/eta jarduera gehiago izaten dituzte beren udalerrietan.

Azkenik, ez da batere aipamenik egiten zehapenek izan behar duten publikotasunari buruz. Zehapen larri edo oso larriei buruz eta gure ustez derrigorrezkoa den publikotasunaren edukiei buruz ari gara, bereziki. Horiek guztiak Legeak bildu beharko lituzkeen beharkizunak dira, izan ere, turismo jarduera bat klandestinitate, arauak ez-betetze edo iruzur baldintzetan burutzea iruzur argia delako turismo jarduera hori eskaintzen zaien erabiltzaileentzat eta gizarte osoarentzat.

Hori guztia horrela, proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea eskatzen dugu.

## ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

**1. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

9.4 artikuluari aurkeztutako emendakina.

Proiektuaren testua: 9.4 artikulua.: “Turismo arloan eskumena duen Administrazioari jakinarazitakoa edo baimenduta dagoena... iragarritakoaren % 50 baino gehiago, edo ez den betetzen prezioen gainean duten xedapenetan adierazitakoa.”

Proposatzen den testua: 9.4 artikulua: iragarritakoaren % 20 baino gehiago,...”

Zioak: Uste dugu ezarritako prezioaren gainean % 20 baino gehiago kobratzea akats larria izan behar dela.

### 10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

**2. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

10.7. artikuluari aurkeztutako emendakina.

Proiektuaren testua: 10.7. artikulua: “Turismo arloan eskumena duen Administrazioari jakinarazitakoa... % 50 baino gehiago baldin bada”.

Proposatzen den testua: 10.7. artikulua: Turismo arloan eskumena duen Administrazioari jakinarazitakoa... % 20 baino gehiago baldin bada”.

Zioak: Aurreko emendakinera jo behar da.

## 14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

**3. EMENDAKINA**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

14.1. artikulua aldatzeko emendakina.

Hurrengo idazatietako zenbatekoak aldatzea:

a) “100.000 pta.”ren ordez “50.000 pta.”

b) “500.000 pta.”ren ordez “250.000 pta.”

c) “5.000.000 pta.”ren ordez “2.000.000 pta.”

Zioak: Egokiagoa da.

## 19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

**4. EMENDAKINA**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

19.1. artikulua aldatzeko emendakina.

Hurrengo preskripzioak aldatzea:

“bi urteren buruan” jarri ordez “urte baten buruan” jartzea.

“urte baten buruan” jarri ordez “sei hilabeteren buruan” jartzea.

“sei hilabetera” jarri ordez “hiru hilabetera” jartzea.

Zioak: Egokiagoa da.

**E Saila:**
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

# Mozioa, Nafarroako Gobernuak basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko Foru Legea alda dezan eskatzen duena

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko Foru Legea alda dezan eskatzen duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko urriaren 14a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## MOZIOAREN EDUKIA

Andrés Basterra Layana Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betez, ondoko mozioa aurkezten du Parlamentuko Mahaian:

Berriki, Diputatuen Kongresuak Naturguneak Zaintzeari buruzko Legearen aldaketa onetsi du. Testu berriak baimena ematen du hegazti migratzaileak hazkuntza tokietara itzultzeko bidean ehitzatzeko, eta jarduera hori legezko bihurtzen du.

Hori dela eta, Parlamentuaren Osoko Bilkurak onets dezan aurkezten du ondoko erabaki proposamena:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabaki honen jakinarazpenetik aurrera:

1.- Osa eta buka dezan kotrapasa izenaz ezagutzen den ehiza jarduera Nafarroan burutzeko gaitasuna ala gaitasun eza justifikatuko duen administrazio-espediente egokia.

2.- Foru Parlamentuan aurkez dezan basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/93 Foru Legea aldatzeko Lege proiektu bat, hain zuzen ere kontrapasa izeneko ehiza jarduera ahalbidetzeko.”

Iruñean 1997ko urriaren 7an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

# Mozioa, Espainiako Gobernua premiatzen duena Amsterdameko itunaren Amaierako Aktari atxiki dakion, Komunitate Autonomoei subsidiariotasun printzipioa modu eraginkorrean aplikatzeari dagokionean,

*«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA*

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak mozioa aurkeztu du Espainiako Gobernua premiatuz Amsterdameko itunaren Amaierako Aktari atxiki dakiola, Komunitate Autonomoei subsidiariotasun printzipioa modu eraginkorrean aplikatzeari dagokionean. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**MOZIOAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192 eta 193. artikuluen babesean, ondoko mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran izapida dadin.

Joan den uztailaren 17an, Amsterdamen egindako Europako Batasuneko Gobernuarteko Konferentzian, itun berri bat onetsi zen, zeinak Europako Batasunaren ituna, Europako Komunitateetako ondoz ondoko itunak eta haiekin lotutako zenbait egintza aldarazten baititu.

Azken horien artean, Konferentziak aintzat hartu zituen Amaierako Aktan eranskin bezala ezarri ziren zenbait adierazpen. Horien artean, Alemania, Austria eta Belgikaren proposamen bat zegoen, deklaratzeko Europako Komunitateko egintzak –subsidiariotasun printzipioaren arabera– ez dituela ukitzen soilik Estatu kideak, baizik eta baita ere Estatu horien entitateak, nazio mailako konstituzio-zuzenbideak ematen dizkien berezko legegintza ahalmena duten neurrian.

Espainiako Gobernuaren ordezkaritzak ez zuen deklarazio hori izenpetu, nahiz eta Espainiako Estatuaren barrenean legegintza ahalmena eta berezko eskumenak ematen dituen autonomia politikoa dagoen. Horrek berekin dakar komunitate autonomoetako subsidiariotasun printzipioa bazter uzten ari dela. Era horretan, Espainiako Gobernuak Europako Komunitatearekiko harremanetan eta Komunitateko borondatea eratzeko daukan esklusibotasuna mantendu nahi du, baita barneko zuzenbidean komunitate autonomoen eskumena diren gaietan ere. Beraz, komunitate horiek prozesu europarretik kanpo uzten ari da.

Europan sartzeko prozesuan subsidiariotasuna behin eta berriz aipatzen duen Espainiako Gobernuak ez du printzipio hori ezagutzen komunitate autonomoei dagokienean, prozesu horren partaide diren neurrian. Modu horretan ahaztu egiten du Batasunaren Itunak bidea ematen duela Estatuaren eta komunitate autonomen ordezkariek Europako Batzordean eta Kontseiluan parte hartzeko. Ez dute nahi barneko antolamenduan ohikoa den gauza bat Europa mailan ere ohikoa izatea. Bide horretan ez dira aski sektorearteko batzordeak.

Beste behin Madrilgo Gobernuak erakusten du begirune gutxi diela egitate autonomikoei. Bere zentralismorako bidegabeko joeraren ondorioz, erabat deuseztu nahi du komunitate autonomoen protagonismoa. Espainiako Gobernua ez da konformatu eranskinari atxiki gabe geratzearekin, izan ere ez baitu komunitate autonomoek Europako Auzitegira zuzenean helegiteak aurkezteko legitimazioa izatearen alde egin, ez eta parlamentu autonomikoen eta Europako Parlamentuaren arteko harremanak erakunde mailan jartzearen alde egin ere. Hori guztia, gainera, komunitate autonomoen aho bateko iritziaren aurka.

Jarrera horrek argi erakusten du Gobernuak ez duela nahi komunitateek –dituzten eskumenen esparruan– bere autogobernua indartzea Europako erakundeetan esku hartzearen bitartez; izan ere, erakunde horietako partaidetza esklusiboa eduki nahi du, nahiz eta Maastrichteko Itunak komunitate autonomoek parte hartzeko bidea ematen duen eta subsidiariotasunaren printzipioak hori exigitzen duen.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuari ondoko erabaki-proposamena hartzea proposatzen zaio:

“Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkari gorena den aldetik, Espainiako Gobernuari exigitzen dio Alemania, Austria eta Belgikak Amsterdameko Itunaren Amaierako Aktan proposatutako eranskinari atxiki dakiola, komunitate autonomoei subsidiariotasun

printzipioa modu eraginkorrean aplikatzeari dagokionean, izan ere modu horretan komunitate horiek Europako Komunitateko erabakietan parte hartuko bailukete, Europako Batzordearen eta Kontseiluaren komiteetan egonen liratekeelako, beren barne antolamenduko eskumenei dagokien kasuetan. Era berean, Espainiako Gobernuak bultza ditzala komunitate autonomoei Estrasburgoko Auzitegian helegiteak aurkezteko legitimazioa ezagutzea, eta parlamentu autonomikoen eta Europako Parlamentuaren arteko harremanetarako bideak".

Iruñean, 1997ko urriaren 13an

Bozeramalea: Juan Cruz Alli Aranguren

---

# Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena txosten bat igor dezan, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe guztietan banakako armairuak jartzeko planarekin

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak mozioa aurkeztu du Nafarroako Gobernua premiatuz txosten bat igor dezan, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe guztietan banakako armairuak jartzeko planarekin. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## MOZIOAREN EDUKIA

Carlos Cristobal, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentaria, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoarekin bat, hurrengo mozioa proposatu du tramitatzeko:

Kontsumitzaileen hainbat elkartek eta mediku adituek egindako zenbait azterlanek agerian utzi dute eskolara joateko adina duten umerik gehienek egokia baino pisu handiagoa daramatela euren eskola-motxiletan.

Izan ere, larria da hori, kontuan hartzen badugu hazten ari diren umeek ez luketela euren pisuaren ehuneko 10a baino gehiagoko zamarik eraman behar motxiletan. Estatistiken arabera, ordea, eskola-umeek euren pisuaren ehuneko 26a, batez beste, bizkarreratu ohi dute, gomendatua baino askoz gehiago.

Ikasle askok, gainera, hogei minutu inguru eman ohi du etxetik eskolarako bidean, eta bi edo lau aldiz egiten du bide hori, egunero. Horrek esan nahi du ordu betez goiti eraman ohi dutela zama hori, egunero.

Horren guztiaren ondorena bizkarreko eta bizkarrezurreko akidura eta mina dira.

Eskola-umeen motxilen gehiegizko pisuaren arazoa bideratzeko, Europako Batasunak gomendatu du armairuak jartzea ikastetxeetan, umeek liburuak bertan utz ditzaten eta etxeko lanerako behar-beharrezko dutena baino ez dezaten eraman.

Badira arazoari aurre egiteko beste neurri batzuk: gurpil eta guztiko motxila berriak erabiltzea, pisua erosoago garraiatzeko aukera ematen dutenak. Gainera, motxila betetzeko garaian, hobe da gauza astunak edo handiak, liburuak esate baterako, zut geratzea, bizkarretik ahalik eta hurbilen, eta motxilako uhalak erregulatzea pisua, ipurdiratu ordez, bizkarreratzeko.

Horiek horrela, hurrengo mozioa onestea proposatzen dut:

1.- Nafarroako Gobernua premiatzea abenduaren bata baino lehen Parlamentura igor dezan txosten bat Nafarroako lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe guztietan banakako armairuak jartzeko planarekin, aipatu planak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan izango lukeen kostua zehaztuz.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea kanpaina bat egin dezan Nafarroako eskola-umeek eskolako motxilak behar bezala erabil ditzaten eta etorkizuneko banakako armairuak erabiltzera ohitu daitezen.

Iruñean, 1997ko urriaren 13a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristóbal García

**F Saila:**
**GALDERAK**

# Ondasun higigarrien zaharberritzea esleitzeko irizpideei buruzko galdera

*Mª ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak ondasun higigarrien zaharberritzea esleitzeko irizpideei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

Mª Isabel Arboniés Bermejo, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Hezkuntza eta Kultura bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1991z geroztik, batez ere Elizarenak eta, zehazki, Iruñeko Artzapezpikutzarenak diren ondasun higigarriak zaharberritzeko jarduketei dagokienez prozedura ezberdinak jarraitu ditu Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zerbitzuak, kasu batzuetan oso argiak ez diren eskakizun-maila ezberdinak ezarriz.

Esleipen horietako gehienak Artzapezpikutzaren instalazioetan bertan kokaturiko "Centro de Conservación y Restauración (CCR)" enpresari ematen ari zaizkio.

Era berean, Interes Kulturaleko Ondasunak zaharberritzeko esleipen-prozedura ere aldakorra izan da. 1997 arte, Vianako Printzea Erakundeak ez du Administrazio Publikoen Kontratazio Legearen araudira jo, irizpide teknikoei lehentasuna emanez jabearen proposamenaren gain; kasu honetan, jabetzaren %100a Artzapezpikutzarena da. Ordurarte haren iritziak determinatzen zuen eremuko profesionalen kontratazioa.

Aurten arte lizitazioetan ez da eskatu Zaharberritze arloan Lizentziatu edo Diplomatu izatea. Titulazio hori 1991z geroztik existitzen da. Zaharberritze-lanetan 30 urte baino gehiagoko esperientzia izanik ere baldintza hori betetzen ez duten enpresak punturik jaso gabe geratzen dira.

Hori guztia dela-eta, zera jakin nahi da:

1.- Zer irizpide erabili da aldaketa egin eta Nafarroako eliza-obrak zaharberritzeko esperientzia punturik gabe uzteko?

2.- Nafarroako Museoko Zuzendariak ba al du Lizentziatu edo Diplomatu titulaziorik Zaharberritze arloan?

3.- Vianako Printzea Erakundeak ez al dio CCR enpresari, alegia, bere esperientzia 1991 baino lehenagokoa izan ez arren, titulatuak dituen enpresa bakarra den horri, mesederik egin izan nahi?

Iruñea, 1997ko urriaren 7a

Foru Parlamentaria: Isabel Arboniés Bermejo

## Gizarte Ongizate Departamentuko “Komunikazioak” izeneko 31480-4 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

*REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Gizarte Ongizate Departamentuko “Komunikazioak” izeneko 31480-4 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Reyes Cortaire Tirapu, “Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

“Komunikazioak” izeneko Gizarte Ongizate Departamentuko 31480-4 aurrekontu-lerroari dagokionez, zera jakin nahi da:

1.- Zenbat bete da aurrekontu-lerro horretatik eta zein da kontusail horretatik erabil daitekeen kopurua?

2.- Zer jarduketatan erabili da gastaturikoa? Zer kopuru erabili da?

3.- Zer jarduketa burutuko da erabil daitekeen kopuruarekin, eta zenbat gastatuko da jarduketa bakoitzean?

Iruñea, 1997ko urriaren 6a

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

---

## Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentuekin zerikusia duten hainbat gairen gainean, “Gizarte- eta osasun-balioespeneko lan-taldeei” buruzko galdera

*REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentuekin zerikusia duten hainbat gairen gainean, “Gizarte- eta osasun-balioespeneko lan-taldeei” buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Reyes Cortaire Tirapu, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak 1996. urteari dagokion Jarduera Oroitidazkian jakinarazten duenez, hainbat laguntza eman die Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei, eta horien artean honako hau zehazten da:

“Gizarte- eta osasun-balioespeneko lan-taldeetan parte hartzea”.

Osasunaren zein gizarte ongizatearen eremuetako profesionalek, hala nola zuzenki zein zeharka arazo psikosozialak pairatzen ari diren pertsonek Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentuen artean koordinaturiko jarduketen abiaraztearen alde agertu duten interes bizia dela-eta, Nafarroako Gobernuak ondoko galderak idatziz erantzun ditzala eskatzen dut:

1.- Lehen aipaturiko oroitidazkiak jasotzen duen “gizarte- eta osasun-balioespeneko lan-taldeetan partehartzeak” ba al du zerikusirik adimen-eritasunak jasaten dituzten pertsonen gizarte-beharrizanekin?

2.- 1996ko abenduaren 31rako, zer alderditan sakondu da? Zer ondoriotara iritsi ziren 1996an zehar lanean ziharduten aditu- eta profesional-talde ezberdinak?

3.- 1997ko urtarrilaren 1etik irailaren 30a arte, biak barne, aipaturiko gizarte- eta osasun-balioespeneko lan-taldeetan Gizarte Ongizatearen parte hartzeak izan al du jarraipenik?

4.- Erantzuna baiezkoa izatekotan, zein ondoriotara iritsi da? Zein alderdiri buruz lortu da akordioa, Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentuen arteko lankidetza-koordinazioaren arloan, adimen-eritasunak jasaten dituzten pertsonen gizarte- eta osasun-beharrizanei erantzuteko?

Iruñea, 1997ko urriaren 6a

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

---

## “Azterlanak eta proiektuak” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak “Azterlanak eta proiektuak” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Reyes Cortaire Tirapu, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1997ko irailaren 22ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, “azterlanak eta proiektuak” aurrekontu-kontusailetik erabilitako fondoei buruzko galdera bati erantzuten dio Gizarte Ongizate Kontseilariak. Bertan, NUPekiko bi hitzarmen aipatzen dira: bata, Nafarroan Gizarte Zerbitzuen Lehen Mailako Arreta Berrantolatzeko Planaren aurreproiektua egiteko, eta, bestea, Nafarroan gizarte-bazterketaren problemak dituen ezaugarrien gainean azterketa bat burutzeko eta Familia eta Komunitate arloan oinarrizko errentarako programa ikertu eta aztertzeko proiektu bat lantzeko. Hau dela-eta, zera jakin nahi da:

1.- Zein dira hitzarturiko jarduketa-faseak?

2.- Zein da programa horiek lantzeko egutegia?

3.- Zer jarduketa-fasetan aurkitzen dira?

4.- Zer data aurreikusi den Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan honako hauek jasotzeko: Nafarroako Gizarte Zerbitzuak Berrantolatzeko Planaren aurreproiektua eta gizarte-bazterketaren problemak Nafarroan dituen ezaugarriei buruzko azterketa.

5.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua eta NUPen artean sinaturiko hitzarmenen kopia bana eskatzen da.

Iruñea, 1997ko urriaren 6a

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

---

# “El Vergel” egoitzari buruzko galdera

*REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak “El Vergel” egoitzari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Reyes Cortaire Tirapu, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

“El Vergel” egoitzari buruz zera jakin nahi da:

1.- Zein da, 1997ko urriaren 1eko datarekin, bertan bizi den pertsona-kopurua?

2.- Horietako zenbat daude “lagunduak” baldintzan?

3.- Zein den plantilaren osakera: lanean diharduten pertsonen kopuru osoa, profesio-prestakuntza zehaztuz.

4.- “El Vergel egoitzako inbertsioak” izeneko 31210-0 aurrekontu-lerrotik zenbat bete da? Aipatu aurrekontu-kontusailetik zer kopuru erabil daiteke?

Iruñea, 1997ko urriaren 6a

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

---

# “Hirugarren adineko zentroen obra eta ekipamenduetarako transferentziak enpresei” izeneko 99006-0 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

*REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak “Hirugarren adineko zentroen obra eta ekipamenduetarako transferentziak enpresei” izeneko 99006-0 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Reyes Cortaire Tirapu, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

“Hirugarren adineko zentroen obra eta ekipamenduetarako transferentziak enpresei” izeneko 99006-0 aurrekontu-lerroari dagokionez, zera jakin nahi da:

1.- Zenbat bete da aurrekontu-lerrotik eta zer kopuru erabil daiteke aipaturiko kontusailetik?

2.- Zer zentrotan esku hartu da eta zer kopururekin?

3.- Zer nolako lana egin da horietako bakoitzean?

4.- Zer enpresak burutu dituzte obra edo ekipamenduak?

Iruñea, 1997ko urriaren 6a

Foru Parlamentaria : Reyes Cortaire Tirapu

---

## “Plan Gerontologikoa garatzeko ekintzak” izeneko 31300-0 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

*REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak “Plan Gerontologikoa garatzeko ekintzak” izeneko 31300-0 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Reyes Cortaire Tirapu, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

“Plan Gerontologikoa garatzeko ekintzak” izeneko 31300-0 aurrekontu-lerroari dagokionez, zera jakin nahi da:

1.- Zenbat bete da aurrekontu-lerrotik eta zein da kontusail horretan erabil daitekeen kopurua?

2.- Zer jarduketatan erabili da gastaturikoa? Zer kopuru erabili da?

3.- Zer jarduketa burutuko dira erabil daitekeen kopuruarekin eta zenbat gastatuko da horietako bakoitzean?

Iruñea, 1997ko urriaren 6a

Foru Parlamentaria : Reyes Cortaire Tirapu

---

## Mendaviako garraio publikoaren zerbitzuak duen egoerari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Mendaviako garraio publikoaren zerbitzuak duen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko 184. artikuluak eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

Mendavia herria Lizarra eta Iruñarekin lotzen duen autobus zerbitzua aldatu da, bidaietako denborak laburtzeko eta beharrezko desplazamenduak arintzeko, baina horrek berekin ekarri du ohiko geltokia hirigunetik herriaren ondoan dagoen gasolindegi batera eramatea.

Aldaketa horrek abian jarri zenetik hiru hilabete baizik igaro ez direla, nahibagea sortu du Mendaviako bizilagunengan. Mendaviatarrak ohartu dira ibilgailurik ez dutenek eta edadetuek arazoak dituztela gasolindegira joateko autobusa hartzera.

Egoera hori askoz ere larriagoa izanen da negua etortzen denean, izan ere, bidaiariak Lizarrara garraiatzeko zerbitzua askotan erabiltzen delako Lizarrako Ospitaleko mediku kontsultetara joateko.

Beraz, Mendavia herriko bidaiariak garraiatzeko zerbitzuaren egoera eta gaurko egoerarako konponbideak direla eta, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Noiz aldatu ziren Mendaviatik Lizarra eta Iruñera bidaiarientzako garraioaren baldintzak? Jakin al zuen Nafarroako Gobernuaren Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak aldaketa hori eginen zela? Zein entitatek edo pertsonak

eman zuen horren berri? Zein prozedura erabili zuen horretarako?

2. Noiz jakin zuen Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Mendaviako bizilagunak nahigabetuta zaudela egoera horrekin? Zein entitatek edo pertsonak eman zuen horren berri? Zein prozedura erabili zuen horretarako?

3. Bidaiarientzako garraio zerbitzu horren egoera egokitzen al zaio indarra duen legediari? Ezezkoan: legediaren zein arau ez dira betetzen?

4. Legezkotasunaren ikuspuntutik, beharrezkoa bada, eta Mendaviako bizilagunek aipatutako bidaiarientzako garraio zerbitzuetara ailegatzeko daukaten egoera hobetzeko borondatearen ikuspuntutik: zein jarduera egin ditu edo egiteko asmo du Nafarroako Gobernuaren Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak arazoari konponbidea emateko?

Iruñean, 1997ko urriaren 7an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

## “Lupo Proiektua” fabrikatzeari buruzko galdera

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Lupo Proiektua” fabrikatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldean den “Nueva Izquierda”ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten:

Abuztuaren 28an, SKF enpresaren instalazioetara egindako bisitan, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak aditzera eman zuen eragiteko asmoa zuela Volkswagen Taldeak “Lupo Proiektua” fabrikatzeari buruz eta modelo berri hori VW-Navarra lantegian fabrikatzeari buruz urria eta azaroa bitartean hartu beharreko erabakia aldekoa izan zedin.

Egun hartan, komunikabideek jaso zuten bezala, Miguel Sanz Gobernuko Lehendakariak azpimarratu zuen Volkswgen Taldeko zuzendaritzarekin zuzenean hitz egin beharra zegoela gai horretaz, irailaren bukaera aldean egiteko asmo zuen bisitan.

Lupo proiektu berria Nafarroan fabrikatzearen aldeko jarrerak Nafarroaren garapen industrialerako izanen lukeen garrantzia ikusita, Nafarroako lantegiko sindikatuek, buruan UGT eta CC.OO. dutela, ahalegin handiak eta negoziaketak egin dituzte beren esku dauden edo egon daitezkeen oztopoak gainditzeko.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Ikusita zein garrantzitsua den enpresa nafar batzuentzat Volkswagen Taldeak azken buruan hartuko duen erabakiak, zein jarduketa burutzen ari da edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak erabaki hori aldekoa izan dadin eragiteko?.

2. Noizko aurreikusi da abuztuaren 28an komunikabideei irailaren bukaerarako iragarri zitzaien bisita eta bilera ospetsu hori?

Iruñean, 1997ko urriaren 7an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

---

## Belate eta Almandozko tunelak bukatzeari buruzko galdera

*BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Belate eta Almandozko tunelak bukatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

• Belateko tunela bukatzeko eguna.

• Almandozko tunela bukatzeko eguna.

• Bien atzerapenaren justifikazioa.

• Belateko eta Almandozko tunelak erabili ahal izango diren egunaren aurreikuspena.

• Errepide osoa, Oronoz-Mugairiraino, erabili ahal izango den egunaren aurreikuspena.

Iruñean, 1997ko urriaren 7a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## "Nekazaritza ustiategien eraginkortasunaren hobekuntza" aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "nekazaritza ustiategien eraginkortasunaren hobekuntza" aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Nekazaritza-ustiategien eraginkortasuna hobetzeko laguntzak 1992an sortu ziren, egiturak bateratuz eta berrantolatuz eta jarduera osagarriak sustatuz nekazaritza-ustiategien eraginkortasuna hobetzen laguntzeko asmoz.

Laguntza horiek 1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta geratu ziren: "40. Nekazaritza-ustiategien eta errenten eraginkortasunaren hobekuntza" izeneko programaren barnean, "Nekazaritza ustiategien eraginkortasunaren hobekuntza" (40001) proiektu-izenarekin, zehazki "Nekazaritza Ustiategien eraginkortasunaren hobekuntza. (FEOGA-O) (**)" aurrekontu-kontusailari zegokion 97068-0 lerroan, 71510 sailkapen organikoarekin, 7700 sailkapen ekonomikoarekin eta 5313 sailkapen funtzionalarekin, eta 1340 milioi pezetako dotazioa izan zuen.

1997ko ekitaldian zehar laguntza horiek nola erabiltzen ari diren xehetasunez ezagutzeko asmoz egina dago parlamentuko galdera hau.

Gai honen inguruan honako puntuei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Nafarroan nekazaritza egituren eraginkortasuna hobetzeko laguntzei buruzko Erregelamendua onetsi zuen irailaren 28ko 297/1992 Foru Dekretuaren edukia aldatu duten edo hori gara-

tzeko eman diren Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- Kontusail honetarako 1997rako Nafarroako Aurrekontuen aurreproiektuan kontsignaturiko kopurua; baita ere, Parlamentu honetan Nafarroako Aurrekontu Orokorrak izapidatu eta onestean zein Foru Aginduak (transferentziak) argitaratuz eta ebazpenen bidez (kreditu-gehikuntzak) gorantz egin diren aldaketak, indarreko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabilitakoaren zenbatekoa osatu arte.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala urte anitzerako izateagatik 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Indarreko aurrekontu-ekitaldian zehar izapidatu edo aurkeztu diren espedienteen zerrenda, horiek guztiak indarreko legediak ezarritako laguntza-lerro ezberdinen arabera sailkatuz. Ondokoa adierazi behar da: espediente-zenbakia, eskaera-data, zenbatekoa (korrituentzako dirulaguntza ala dirulaguntza zuzena den aipatuz) eta ordainketa-data.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 8a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

## “Ureztalur berrietarako edo jadanik daudenak hobetzeko dirulaguntza” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ureztalur berrietarako edo jadanik daudenak hobetzeko dirulaguntza” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, ureztalur berriak sortuz edo jadanik daudenak hobetuz lurraren produkzio-gaitasuna aldatzeko burutzen ari diren jarduketei eusteko eta horiek areagotzeko ere, “Ureztalur berrietarako edo jadanik daudenak hobetzeko dirulaguntza (**)” aurrekontu-kontusaila onetsi zen, “20. Nekazaritza-baliabideen hobekuntza” izeneko programaren barnean, “Ureztalurrak” (20001) proiektu-izenarekin, zehazki, 97084-1 lerroan, 71400 sailkapen organikoarekin, 7400 sailkapen ekonomikoarekin eta 5321 sailkapen funtzionalarekin, eta 1427 milioi pezetako dotazioa zeukan.

Helburu orokor hauek bi puntu hauetan gauzatzen ziren: bata, Caparroso, Bargota, Valtierra, Bardeak, Andosilla, Azagra, Sesma, Mendavia, Urantzia, Viana eta Tutera inguruetan zeuden hainbat sekain lur, guztira 2577 hektareako hedadura zutenak, ureztalur bihurtzea zen, eta bestea Bayunga, Beire, Castejón, Funes, Santacara, Arguedas, Mélida, Lerín, Alesbes, Azketa eta Iguzkitza inguruetako hainbat ureztalur, guztira 1448 hektareako hedadura zutenak, hobetzea.

Parlamentuko galdera hau 1997ko ekitaldian zeharreko laguntza horien erabilpena xehetasunez jakiteko asmoz egina dago.

Gai honen inguruan, honako puntuei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honi aplika dakizkiokeen arauen edukia aldatu duten edo kontusaila garatuz eman diren Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- Kontusail honetarako 1997rako Nafarroako Aurrekontuen aurreproiektuan kontsignaturiko kopurua; baita ere, Parlamentu honetan Nafarroako Aurrekontu Orokorrak izapidatu eta onestean zein Foru Aginduak (transferentziak) argitaratuz eta ebazpenen bidez (kreditu-gehikuntzak)

gorantz egin diren aldaketak, indarreko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabilitakoaren zenbatekoa osatu arte.

3.- 1997an erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala urte anitzerako izateagatik 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Indarreko aurrekontu-ekitaldian zehar buruturiko jarduketen zerrenda, jarduketa bakoitzari buruz honakoa aipatuz: udalerria, jarduketa-mota, hedadura eta ukituriko titularrak, hasierako aurrekontua, jarduketaren egungo egoera, aurrekontu burutua, amaituriko jarduketen kasuan likidazio-aurrekontua, eta martxan jarraitzen duten jarduketentzat aurreikusten den amaiera-data.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 8a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

## "Errentamendu historikoak. Lursail-erosketa" aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Errentamendu historikoak. Lursail-erosketa" aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, landa-errentamendu historikoak dituzten maizterrek lantzen dituzten lurren jabetza lor dezaten errazteko asmoz, "40. Nekazaritza ustiategien eta errenten eraginkortasuna hobetzea" programaren barnean, "Nekazaritza ustiategien Eraginkortasuna Hobetzea" (40001) proiektu-izenarekin, zehazki 27670-8 lerroan, "Errentamendu historikoak. Lursail-erosketa(**)" aurrekontu kontusaila onetsi zen, 71510 sailkapen organikoarekin, 7700 sailkapen ekonomikoarekin eta 5313 sailkapen funtzionalarekin, eta 35 milioi pezetako dotazioa zeukan.

Parlamentuko galdera hau laguntza horien 1997ko ekitaldian zeharreko erabilpena xehetasunez jakiteko asmoz egina dago.

Gai honen inguruan honako puntuei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honi aplika dakizkiokeen arauen edukia aldatu duten edo kontusaila garatuz eman diren Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- Kontusail honetarako 1997rako Nafarroako Aurrekontuen aurreproiektuan kontsignaturiko kopurua; baita ere, Parlamentu honetan Nafarroako Aurrekontu Orokorrak izapidatu eta onestean zein Foru Aginduak (transferentziak) argitaratuz eta ebazpenen bidez (kreditu-gehikuntzak) gorantz egin diren aldaketak, indarreko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabilitakoaren zenbatekoa osatu arte.

3.- 1997an erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala urte anitzerako izateagatik 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Indarreko aurrekontu-ekitaldian zehar buruturiko jarduketen zerrenda, jarduketa bakoitzari buruz honakoa aipatuz: udalerria, jarduketa-mota, hedadura eta ukituriko titularrak, hala nola jarduketara bideraturiko aurrekontu-kontsignazioaren zenbatekoa.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 8a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# “Nafarroako Aratxea, Kalitatezko Haragia. 5b Plan Operatiboa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Nafarroako Aratxea, Kalitatezko Haragia. 5b Plan Operatiboa” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, behikiaren produkzioa eta salmenta pairatzen ari zen egoera bereziari aurre egiteko asmoz, “50. Elikadura kalitatearen sustapena, hobekuntza eta kontrola” Programaren barnean, “Nekazal industrializazioaren eta merkaturatzearen hobekuntza” (50001) proiektu-izenarekin, zehazki 28070-5 lerroan, “Nafarroako Aratxea, Kalitatezko Haragia. 5b Plan Operatiboa (**)” aurrekontu-kontusaila onetsi zen, 71210 sailkapen organikoarekin, 4809 sailkapen ekonomikoarekin eta 5431 sailkapen funtzionalarekin, eta 24 milioi pezetako dotazioa zeukan.

Parlamentuko galdera hau laguntza horien 1997ko ekitaldian zeharreko erabilpena xehetasunez jakiteko asmoz egina dago.

Gai honen inguruan honako puntuei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honi aplika dakizkiokeen arauen edukia aldatu duten edo kontusaila garatuz eman diren Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- Kontusail honetarako 1997rako Nafarroako Aurrekontuen aurreproiektuan kontsignaturiko kopurua; baita ere, Parlamentu honetan Nafarroako Aurrekontu Orokorrak izapidatu eta onestean zein Foru Aginduak (transferentziak) argitaratuz eta ebazpenen bidez (kreditu-gehikuntzak) gorantz egin diren aldaketak, indarreko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabilitakoaren zenbatekoa osatu arte.

3.- 1997an erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala urte anitzerako izateagatik 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- “Nafarroako Aratxea” izendapena ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunetan, horren kalitatearen alde eta horren merkaturatzeari bultzada emateko indarreko aurrekontu-ekitaldian zehar eginiko jarduketen zerrenda, jarduketa bakoitzari buruz honakoa aipatuz: jarduketaren deskripzio laburra, jarduketa-mota, jarduketaren helburuak eta horretara bideraturiko aurrekontu-kontsignazioaren zenbatekoa.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 8a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# “Ustiategien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzak (Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Legea)” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ustiategien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzak (Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Legea)” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, azaleraren arabera bideragarriak diren ustiategiak eratzeko nekazariei laguntzak emateko asmoz, “20. Nekazal baliabideen hobekuntza” programaren barnean , “Lursail-bateratze” (20002) proiektuizenarekin , zehazki 27190-0 lerroan, “Ustiategien oinarrizko azalerak eratzeko laguntzak (nekazaritza-azpiegiturei buruzko legea) (**)” aurrekontukontusaila onetsi zen, 71400 sailkapen organikoarekin, 7700 sailkapen ekonomikoarekin eta 5312 sailkapen funtzionalarekin, eta dotazioa 32 milioi pezetakoa zeukan.

Parlamentuko galdera hau laguntza horien 1997ko ekitaldian zeharreko erabilpena xehetasunez jakiteko asmoz egina dago.

Gai honen inguruan honako puntuei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honi aplika dakizkiokeen arauen edukia aldatu duten edo kontusaila garatuz eman diren Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- Kontusail honetarako 1997rako Nafarroako Aurrekontuen aurreproiektuan kontsignaturiko kopurua; baita ere, Parlamentu honetan Nafarroako Aurrekontu Orokorrak izapidatu eta onestean zein Foru Aginduak (transferentziak) argitaratuz eta ebazpenen bidez (kreditu-gehikuntzak) gorantz egin diren aldaketak, indarreko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabilitakoaren zenbatekoa osatu arte.

3.- 1997an erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala urte anitzerako izateagatik 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Lursail-bateratze prozesuen bitartez lursailen tamaina hobetzeko indarreko aurrekontu-ekitaldian zehar buruturiko jarduketen zerrenda, horietako bakoitzerako zera aipatuz: udalerria, jarduketa-mota, jarduketaren deskripzio laburra, ezarritako oinarrizko azalerak, nekazariei emandako laguntzak eta aipaturiko helburuetara bideraturiko aurrekontu-kontsignazioaren zenbatekoa.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 8a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# “Komunalaren Defentsa. (LFA 9. art.)” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Komunalaren Defentsa. (LFA 9. art.)” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, muga-jartze eta komunal-inbentarioen bitartez jabetza komunala defendatzeko asmoz orain dela hainbat urte hasitako lanei eustearren, “Komunalaren Defentsa (LFAko 9. artikulua) (**)” izeneko aurrekontu-kontusaila onetsi zen, “20. Nekazaritza Baliabideen Hobekuntza” programaren barnean, “Lursail Bateratzea” (20002) proiektu-izenarekin, zehazki 27190-0 lerroan, 71440 sailkapen organikoarekin, 7600 sailkapen ekonomikoarekin eta 5332 sailkapen funtzionalarekin, eta 67 milioi pezetako dotazioa zeukan.

Parlamentuko galdera hau laguntza horien 1997ko ekitaldian zeharreko erabilpena xehetasunez jakiteko asmoz egina dago.

Gai honen inguruan honako puntuei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honi aplika dakizkiokeen arauen edukia aldatu duten edo kontusaila garatuz eman diren Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- Kontusail honetarako 1997rako Nafarroako Aurrekontuen aurreproiektuan kontsignaturiko kopurua; baita ere, Parlamentu honetan Nafarroako Aurrekontu Orokorrak izapidatu eta onestean zein Foru Aginduak (transferentziak) argitaratuz eta ebazpenen bidez (kreditu-gehikuntzak) gorantz egin diren aldaketak, indarreko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabilitakoaren zenbatekoa osatu arte.

3.- 1997an erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala urte anitzerako izateagatik 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Indarreko aurrekontu-ekitaldian buruturiko jarduketen zerrenda, horietako bakoitzerako zera aipatuz: udalerria, jarduketa-mota, jarduketaren deskripzio laburra, ukituriko azalera, emandako laguntzak eta aipaturiko helburuetara bideraturiko aurrekontu-kontsignazioaren zenbatekoa.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 8a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Zerga-erreformak Foru Ogasunari erakarriko dion dirubilketa-kostuari buruzko galdera

*JOSE MIGUEL NUIN MORENO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak zerga-erreformak Foru Ogasunari erakarriko dion dirubilketa-kostuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Miguel Nuin Morenok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Joan den urriaren 6an onetsi zuen Nafarroako Gobernuak zerga-erreformari buruzko aurreproiektua, non pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gainekoari eta ondarearen gainekoari buruzko proposamenak biltzen diren.

Exekutiboak egin dituen proposamenen artean aipa daitezke ohiz kanpoko ondare-gehikuntzen gehienezko tributazio-tasaren murrizketa, %20raino, pentsio-planetarako ekarpenen ondoriozko PFEZen oinarri-murrizketa milioi bat pezetaraino igotzea edota sozietateen gaineko zerga-tasa %30era jaistea mozkinen lehenengo 15 milioietarako.

Neurriok, azken finean, foru ogasunarendako dirubiltze-kostu zuzenekoa izango dute 1998ko aurrekontu-ekitalditik aitzina, foru-gobernuak 1997ko urtarrilaren 1etik aitzineko zerga-ondorioak izan ditzatela nahi duelako.

Miguel Sanz Gobernuko Lehendakari jaunak, hala ere, aipatu aurreproiektuaren aurkezpenean esan omen zuen erreformaren dirubilketa-ondorioa neutroa izango dela foru ogasunarendako, Sanz jaunaren ustetan erreformaren ondorioz sortuko diren inbertsio-hazkundea eta enplegu-sorkuntza direla-eta.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak hurrengo galderei erantzutea nahi da:

1.- Zer txosten, azterlan, lan edo datu ditu Gobernuko Lehendakariak zerga-erreformak foru ogasunari erakarriko dion dirubilketa-kostua neutroa izango dela esateko?

2.- Nafarroako Gobernuak ba al du txosten, azterlan, lan edo daturik proposatu duen neurri bakoitzaren dirubilketa-ondorioari buruz? Hala bada, zeintzuk dira exekutiboaren aurreproiektuak proposatu neurri bakoitzaren dirubilketari buruzko datuak?

3.- Nafarroako Gobernuak neurtu al du berak proposatu duen zerga-erreformak inbertsioan eta enplegu-sorkuntzan izango duen "balizko" eragin pizgarria? Hala bada, zenbat inbertsio eta lanpostu sortzea aurreikusi dute eta zer epetan?

Iruñean, 1997ko urriaren 8a

Foru Parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

## Kartoiaren fabrikazioan espezializatua dagoen SAICA enpresari buruzko galdera

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak kartoiaren fabrikazioan espezializatua dagoen SAICA enpresari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten:

Zenbait komunikabidek berretsi zuten bezala, Ramón Bultó jaunak adierazi zuen SAICA Aragoiko enpresa –kartoiaren fabrikazioan espezializatua– Buñuel edo Marcilla aldean instalatzeko asmotan zebilela; hala balitz berrehun lanpostu inguru sortuko lituzke enpresa horrek.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. SAICA enpresak Nafarroan balizko inbertsio hori ahalbidetzeari buruz zerbait aurreratu ote duen, eta hala bada, zein diren Aragoiko enpresa hori Nafarroan, Kontseilariak abuztuan komunikabideei adierazitako herrietako batean, instalatzeko dauden arrazoizko aukerak?

Iruñean, 1997ko urriaren 8an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

---

## "Kooperatibek nekazaritza-produktuak biltegiratu eta eraldatzeko eraikinak egin, zabaldu edo hobetzeko dirulaguntzak" aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Kooperatibek nekazaritza-produktuak biltegiratu eta eraldatzeko eraikinak egin, zabaldu edo hobetzeko dirulaguntzak" aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

Nafarroako 1997ko Aurrekontu Orokorretan kooperatiben bidezko nekazaritza elikagaien industrializazioa eta merkaturatzea sustatzeko xedez, 97016-7 "Kooperatibek nekazaritza produktuak biltegiratu eta eraldatzeko eraikinak egin, zabaldu edo hobetzeko dirulaguntzak" izeneko Aurrekontu-kontusaila onetsi zen, "50. Elikagaien Kalitateren Hobekuntza eta Kontrola Sustatzea" programaren barrenean eta "Nekazaritzaren Industrializazioa eta Merkaturatzea" (50001) izenpean, zehazki. Kontusail horrek ondoko sailkapen organikoa zuen: 71220, Ekonomikoa: 7701, eta Funtzionala: 7151. 374,7 milioi pezetako zenbatekoa ezarri zen.

Galdera parlamentarioa egiten da zehatz-mehatz ezagutzeko dirulaguntza horiek 1997. urtean nola erabili diren.

Gai hau dela eta, ondoko galderei buruzko erantzun idatzia eskatzen da:

1. Kontusail honi aplika dakizkiokeen xedapen arauemaileetako edukia aldatu duten edo kontusail hori garatzeko eman diren Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2. Kontusail horretarako 1997ko Nafarroako Aurrekontuen aurreproiektuan ezarri den zenbatekoa, eta Parlamentu honek Nafarroako Aurrekontu Orokorrak izapidatu eta onetsi bitartean Foru Aginduen bidez (transferentziak) eta Ebazpenen bidez (kreditu gehikuntzak) egin diren goranzko aldaketak, kontusail horretan aurrekontu ekitaldi honetan zehar ezarri den zenbatekoa osatu arte.

3. Kreditu erabilgarria delako edo urteanitzekoa izanda 1996an hitzartuta dagoelako, 1997ko ekitaldian erabilgarri den zenbateko xehekatuta.

4. Aurrekontu ekitaldi honetan kontusail honen kargura egin diren jarduketak, ondokoak zehaztuz bakoitzean: emandako laguntzaren titularra, egindako jarduketaren eta haren helburuen deskribapen laburra, bai eta dagoen aurrekontu kontsignazioaren zenbatekoa.

5. 1998 eta 1999. urteetarako hitzartu den gastua, aurtengo ekitaldian izapidatu diren espedienteak zehaztuz.

Iruñean, 1997ko urriaren 9an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

## “Lurzoru, etxebizitza eta eraikinen salmenta” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Lurzoru, etxebizitza eta eraikinen salmenta” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren bideratzea onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, Biltzar honek horiek izapidatu eta onetsi ondoren, guztira 8740 milioi pezetako gastua erabaki zuten “Etxebizitzen eraiketa eta zaharberritzea (20)” programan egiteko, 1837 milioi pezetako dirusarrera oso bat kalkulatuz.

Aurrekontu-dotazio hauek herritarrei etxebizitza lortzea errazteko xedea zuten, etxebizitza duin bat edukitzeko konstituzio-printzipioa eraginkor eginez; baita ere, dotazio horiekin, eskubide hori eraginkor egiterakoan sortzen diren oztopoak gainditu nahi dira. Gero eta lurzoru eraikigarri publiko zein pribatu gutxiago egoteak eragiten ditu, nagusiki, oztopo hauek. Ondorioz, etxebizitza-eskaintza ez da gure Komunitateko biztanleen beharrizan errealei erantzuteko nahikoa.

Lurzoru-urritasun horrek prezioa handitu egiten du, eta merkatura irteten diren eraikiriko etxebizitzak diru-sarrerarik txikienak dituzten populaziotaldeentzat eskuraezinak izatea ekartzen du ondorio gisa.

Programa honetan, diru-sarrerei dagokienez, eta “Etxebizitzen eraiketa eta zaharberritzea (20000)” proiektuaren barnean, 35800-0 aurrekontu-kontusaila sartu zen, “Lurzoru, etxebizitza eta eraikinen salmenta” izenekoa; 1350 milioi pezetako diru-sarrera batzuk lortzea aurreikusten zuen, eta honela izan zen sailkatua: organikoki, 32200; ekonomikoki,6100.

Parlamentuko galdera hau helburu honekin egiten da: ahalik eta xehetasunik gehienekin ezagutzea kontusail horren 1997ko aurrekontu-ekitaldiko erabilera. Horretarako, honako puntu hauei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- 1997ko ekitaldian sarturiko kopuru osoaren banakatzea, jarduketa bakoitzerako bere helburua, zenbatekoa, herria, ukituriko enpresa edo entitateak eta abar.

Iruñea, 1997ko urriaren 9a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

## "Etxebizitzetarako jarduketetarako dirulaguntzak (jabetza eta alogera)" aurrekontu kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Etxebizitzetarako jarduketetarako dirulaguntzak (jabetza eta alogera)" aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, Biltzar honek izapidatu eta onetsi ondoren, guztira 8740 milioi pezetako gastua erabaki zuten "Etxebizitzen eraiketa eta zaharberritzea(20)" programarako, 1837 milioi pezetako diru-sarrera oso bat kalkulatuz.

Aurrekontu-dotazio hauek herritarrei etxebizitza lortzea errazteko xedea zuten, etxebizitza duin bat edukitzeko konstituzio-printzipioa eraginkor eginez; baita ere, dotazio horiekin, eskubide hori eraginkor egiterakoan sortzen diren oztopoak gainditu nahi dira. Gero eta lurzoru eraikigarri publiko zein pribatu gutxiago egoteak eragiten ditu, nagusiki, oztopo hauek. Ondorioz, etxebizitza-eskaintza ez da gure Komunitateko biztanleen beharrizan errealei erantzuteko nahikoa.

Lurzoru-urritasun horrek prezioa handitu egiten du, eta merkatura irteten diren eraikiriko etxebizitzak diru-sarrerarik txikienak dituzten populaziotaldeentzat eskuraezinak izatea ekartzen du ondorio gisa.

Programa honetan, "Etxebizitzen eraiketa eta zaharberritzea (20000)" proiektuaren barnean, 99001-0 zenbakia eta "Etxebizitzetarako jarduketetarako dirulaguntzak (jabetza eta alogera)(**)" izena dituen aurrekontu kontusaila sartu zen, 6924 milioi pezetako dotazioa zeukana, 32220 sailkapen organikoarekin, 7800 sailkapen ekonomikoarekin eta 4312 sailkapen funtzionalarekin.

Parlamentuko galdera hau helburu honekin egiten da: ahalik eta xehetasunik gehienekin ezagutzea kontusail horren 1997ko aurrekontu-ekitaldiko erabilera. Horretarako, honako puntu hauei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sarturiko data.

2.- Foru Agindu edo Ebazpenen bidez zein aportazio edo aurrekontuz kanpoko finantzaketa bidez gorantz edo beherantz egindako aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala urte anitzerako izateagatik 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Kontusail hau burutzeko eginiko jarduketen zerrenda ahalik eta xehekatuena, horiek zer motatakoak diren eta zer zenbateko duten adieraziz.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 9a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

# “Alogera-etxebizitzak sustatzeko jarduketak Tuterako hirigune historikoan” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Alogera-etxebizitzak sustatzeko jarduketak Tuterako hirigune historikoan” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, Biltzar honek izapidatu eta onetsi ondoren, guztira 8740 milioi pezetako gastua erabaki zuten “Etxebizitzen eraiketa eta zaharberritzea(20)” programarako, 1837 milioi pezetako diru-sarrera oso bat kalkulatuz.

Aurrekontu-dotazio hauek herritarrei etxebizitza lortzea errazteko xedea zuten, etxebizitza duin bat edukitzeko konstituzio-printzipioa eraginkor eginez; baita ere, dotazio horiekin, eskubide hori eraginkor egiterakoan sortzen diren oztopoak gainditu nahi dira. Gero eta lurzoru eraikigarri publiko zein pribatu gutxiago egoteak eragiten ditu, nagusiki, oztopo hauek. Ondorioz, etxebizitza-eskaintza ez da gure Komunitateko biztanleen beharrizan errealei erantzuteko nahikoa.

Lurzoru-urritasun horrek prezioa areagotu egiten du, eta merkatura irteten diren eraikiriko etxebizitzak diru-sarrerarik txikienak dituzten populazio-taldeentzat eskuraezinak izatea ekartzen du ondorio gisa.

Programa honetan, “Etxebizitzen eraiketa eta zaharberritzea (20000)” Proiektuaren barnean, 108891-0 zenbakia eta “Alogera-etxebizitzak sustatzeko jarduketak Tuterako hirigune historikoan (**)” izena dituen aurrekontu kontusaila sartu zen, 50 milioi pezetako dotazioa zeukana, 32210 sailkapen organikoarekin, 6020 sailkapen ekonomikoarekin eta 4311 sailkapen funtzionalarekin.

Parlamentuko galdera hau helburu honekin egiten da: ahalik eta xehetasunik gehienekin ezagutzea kontusail horren 1997ko aurrekontu-ekitaldiko erabilera. Horretarako, honako puntu hauei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Foru Agindu edo Ebazpenen bidez zein aportazio edo aurrekontuz kanpoko finantzaketa bidez gorantz edo beherantz egindako aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

2.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

3.- Kontusail hau burutzeko eginiko jarduketen zerrenda ahalik eta xehekatuena, horiek zer motatakoak eta zer kopurukoak diren adieraziz.

4.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 9a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# “Hirigune historikoak birgaitzeko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoentzat dirulaguntzak” aurrekontu kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Hirigune historikoak birgaitzeko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoentzat dirulaguntzak” aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, Biltzar honek izapidatu eta onetsi ondoren, guztira 8740 milioi pezetako gastua erabaki zuten “Etxebizitzen eraiketa eta zaharberritzea(20)” programarako, 1837 milioi pezetako diru-sarrera oso bat kalkulatuz.

Aurrekontu-dotazio hauek herritarrei etxebizitza lortzea errazteko xedea zuten, etxebizitza duin bat edukitzeko konstituzio-printzipioa eraginkor eginez; baita ere, dotazio horiekin, eskubide hori eraginkor egiterakoan sortzen diren oztopoak gainditu nahi dira. Gero eta lurzoru eraikigarri publiko zein pribatu gutxiago egoteak eragiten ditu, nagusiki, oztopo hauek. Ondorioz, etxebizitza-eskaintza ez da gure Komunitateko biztanleen beharrizan errealei erantzuteko nahikoa.

Lurzoru-urritasun horrek prezioa handitu egiten du, eta merkatura irteten diren eraikiriko etxebizitzak diru-sarrerarik txikienak dituzten populazio-taldeentzat eskuraezinak izatea ekartzen du ondorio gisa.

Programa honetan, “Etxebizitzen eraiketa eta zaharberritzea (20000)” proiektuaren barnean, 10830-9 zenbakia eta “Hirigune historikoak birgaitzeko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoentzat dirulaguntzak” izena dituen aurrekontu kontusaila sartu zen, 230 milioi pezetako dotazioa zeukana, 32210 sailkapen organikoarekin, 6000 sailkapen ekonomikoarekin eta 4311 sailkapen funtzionalarekin.

Parlamentuko galdera hau helburu honekin egiten da: ahalik eta xehetasunik gehienekin ezagutzea kontusail horren 1997ko aurrekontu-ekitaldiko erabilera. Horretarako, honako puntu hauei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sarturiko data.

2.- Foru Aginduen edo Ebazpenen bidez zein aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez gorantz edo beherantz egindako aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Kontusail hau burutzeko eginiko jarduketen zerrenda ahalik eta xehekatuena, horiek zer motatakoak eta zer kopurukoak diren adieraziz.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 9a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# “Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea” aurrekontu kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea” aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, Biltzar honek izapidatu eta onetsi ondoren, guztira 8740 milioi pezetako gastua erabaki zuten “Etxebizitzen eraiketa eta zaharberritzea(20)” programarako, 1837 milioi pezetako diru-sarrera oso bat kalkulatuz.

Aurrekontu-dotazio hauek herritarrei etxebizitza lortzea errazteko xedea zuten, etxebizitza duin bat edukitzeko konstituzio-printzipioa eraginkor eginez; baita ere, dotazio horiekin, eskubide hori eraginkor egiterakoan sortzen diren oztopoak gainditu nahi dira. Gero eta lurzoru eraikigarri publiko zein pribatu gutxiago egoteak eragiten ditu, nagusiki, oztopo hauek. Ondorioz, etxebizitza-eskaintza ez da gure Komunitateko biztanleen beharrizan errealei erantzuteko nahikoa.

Lurzoru-urritasun horrek prezioa gehitu egiten du, eta merkatura irteten diren eraikiriko etxebizitzak diru-sarrerarik txikienak dituzten populaziotaldeentzat eskuraezinak izatea ekartzen du ondorio gisa.

Programa honetan, “Etxebizitzen eraiketa eta zaharberritzea (20000)” proiektuaren barnean, 93002-5 zenbakia eta “Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea” izena dituen aurrekontu kontusaila sartu zen, 1200 milioi pezetako dotazioa zeukana, 32210 sailkapen organikoarekin, 6000 sailkapen ekonomikoarekin eta 4311 sailkapen funtzionalarekin.

Parlamentuko galdera hau helburu honekin egiten da: ahalik eta xehetasunik gehienekin ezagutzea kontusail horren 1997ko aurrekontu-ekitaldiko erabilera. Horretarako, honako puntu hauei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sarturiko data.

2.- Foru Aginduen edo Ebazpenen bidez zein Aportazioen edo aurrekontuz kanpoko Finantzaketaren bidez gorantz edo beherantz egindako aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1997an erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzeko buruturiko jarduketen zerrenda ahalik eta xehekatuena, jarduketa bakoitzari buruz zenbatekoa, azalera erabilgarriak, etxebizitza-kopurua, ukituriko herriak eta abar zehaztuz.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 9a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Makina, aparatu eta instalazioak erabiltzeko aurrekontu-lerroa ezartzeari buruzko galdera

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak makina, aparatu eta instalazioak erabiltzeko aurrekontu-lerroa ezartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldean dagoen “Nueva Izquierda”ko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Joan den abuztuaren 27an sartu zen indarrean uztailaren 18ko 1.215/1997 Errege Dekretua, langileek makinak, aparatuak eta instalazioak erabiltzeko segurtasun eta osasun xedapen gutxienekoak ezarri dituena.

Enpresek hamabi hilabeteko epea dute beharrezko aldaketak egiteko eta, oraingoz behintzat, ez dirudi Nafarroako Aurrekontuetan kontusail berezirik dagoenik prozesu hori azkartzeko moduan, eta era berean, egunean jartzea ahalik eta lasterren egiteko, Nafarroako enpresen kasuan.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aurrekontu-lerro berezirik paratu eta 1998ko Aurrekontuetan sartzea, 1.215/1997 Errege Dekretuak ezarritakoa ahalik eta lasterren martxan jartzea sustatzeko? Baiezkoan, zer baldintzatan aurreikusiko litzateke horren inguruko eskariei erantzutea?

2. Aurreikusita ez balego, egoki eta beharrezkotzat jotzen al du Nafarroako Gobernuak? Hala ez balitz, zer arrazoitan oinarrituta?

Iruñean, 1997ko urriaren 9a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

---

# “Kooperatibaz bestelako eraentzapeko nekazal industrializazio eta merkaturatzean inbertsioak egiteko dirulaguntza” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Kooperatibaz bestelako eraentzapeko nekazal industrializazio eta merkaturatzean inbertsioak egiteko dirulaguntza” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, kooperatibez bestelako enpresek eginiko elikagaien arloko industrializazio eta merkaturatzea sustatzeko asmoz, “50. Elikadura kalitatearen sustapena, hobekuntza eta kontrola” programaren barnean, “Nekazal industrializazio eta merkaturatzearen hobekuntza (50001)” proiektu-izenarekin,

eta, zehazki, 97015-5 lerroan, “Kooperatibaz bestelako eraentzapeko nekazal industrializazio eta merkaturatzean inbertsioak egiteko dirulaguntza” aurrekontu-kontusaila onetsi zen, 1051 milioi pezetako dotazioa eta honako sailkapen hauek zituena: organikoa: 71220; ekonomikoa: 7701; funtzionala: 7151.

Parlamentuko galdera honen helburua zera da: 1997ko ekitaldian laguntza horiek nola ari diren erabiltzen xehetasunez ezagutzea.

Gai honen inguruan, honako puntuei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail horri aplika dakizkiokeen arauen edukia aldatu duten edo kontusaila garatuz eman diren Foru Dekretu eta Aginduen zerrenda.

2.- 1997rako Nafarroako Aurrekontuen Aurreproiektuan kontusail honetarako kontsignaturiko kopurua, eta egin diren goranzko aldaketak, bai Nafarroako Aurrekontu Orokorrak Parlamentu honetan izapidatzen eta onesten ari ziren bitartean bai Foru Aginduen (Transferentziak) zein Ebazpenen (kreditu-gehikuntzak) bidez, indarreko aurrekontu-ekitaldian kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala urte anitzekoa izateagatik 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Indarreko aurrekontu-ekitaldian kontusail honen kargura buruturiko jarduketen zerrenda, eta horietako bakoitzeko: emandako laguntzaren titularra, jarduketaren eta bere helburuen deskripzio laburra eta bideraturiko aurrekontu-kontsignazioaren zenbatekoa.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 9a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

# “Endekaturiko inguruen leheneratzea eta ingurugiro-eraginen zuzenketa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Endekaturiko inguruen leheneratzea eta ingurugiro-eraginen zuzenketa” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek Ingurugiro Departamentuan sartzen dute 90037-1 zenbakia duen aurrekontu-lerroa, 24 milioi pezetako dotazioa duen “Endekaturiko inguruen leheneratzea eta ingurugiro-eraginen zuzenketa” kontusailari dagokiona.

“Ingurugiroaren kudeaketa (30)” programako “Ingurugiroaren kudeaketa (30000)” proiektuaren barnean dagoen kontusail horrek, 31120 sailkapen organikoa, 6019 sailkapen ekonomikoa eta 4421 sailkapen funtzionala dauzka.

1997ko ekitaldian zehar laguntza horiek nola erabiltzen ari diren ahalik eta xehetasun handienarekin ezagutzeko asmoz egina dago parlamentuko galdera hau. Horretarako, honako puntu hauei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sartu diren data.

2.- Foru Aginduen zein Ebazpenen bidez, hala nola aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez (beste erakundeetako laguntzak...) eginiko goranzko aldaketak, 1997ko aurre-

kontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Buruturiko jarduketen zerrenda, eta horietako bakoitzeko: burutze-data, zein aldetan burutu den, jarduketaren deskripzio laburra, burutu duen enpresa, entitate edo erakundea eta galdera honen gai den kontusailetik horretara bideraturiko zenbatekoa.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 10a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

# “Lurzoruen deskontaminazioa” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Lurzoruen deskontaminazioa” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek Ingurugiro Departamentuan 11320-5 aurrekontulerroa sartzen dute, 43 milioi pezetako dotazioa duen “Lurzoruen deskontaminazioa” izeneko kontusailari dagokiona.

“Ingurugiroaren kudeaketa (30)” programako “Ingurugiroaren kudeaketa (30000)” proiektuaren barnean dagoen kontusail horrek, 31120 sailkapen organikoa, 6019 sailkapen ekonomikoa eta 4421 sailkapen funtzionala dauzka.

1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail hori nola erabiltzen ari den ahalik eta xehetasun gehienekin ezagutzeko asmoz egina dago parlamentuko galdera hau. Horretarako, honako puntu hauei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sartu diren data.

2.-Foru Aginduen zein Ebazpenen bidez, hala nola aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez (beste erakundeetako laguntzak...) eginiko goranzko aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Buruturiko jarduketen zerrenda, eta horietako bakoitzeko: burutze-data, zein aldetan burutu den, jarduketaren deskripzio laburra, burutu duen enpresa, entitate edo erakundea eta galdera honen gai den kontusailetik horretara bideraturiko zenbatekoa.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 10a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

---

# "Naturguneak mantentzea eta habitat-ak hobetzea" aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Naturguneak mantentzea eta habitat-ak hobetzea" aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek Ingurugiro Departamentuan 11410-4 aurrekontulerroa sartzen dute, 50 milioi pezetako dotazioa duen "Naturguneak mantentzea eta habitat-ak hobetzea" izeneko kontusailari dagokiona.

"Ingurugiroaren kudeaketa (30)" programako "Ingurugiroaren kudeaketa (30000)" proiektuaren barnean dagoen kontusail horrek, 31210 sailkapen organikoa, 2129 sailkapen ekonomikoa eta 4421 sailkapen funtzionala dauzka.

1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail hori nola erabiltzen ari den ahalik eta xehetasun gehienekin ezagutzeko asmoz egina dago parlamentuko galdera hau. Horretarako, honako puntu hauei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sartu diren data.

2.-Foru Aginduen zein Ebazpenen bidez, hala nola aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez (beste erakundeetako laguntzak...) eginiko goranzko aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar Kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Bururiko jarduketen zerrenda, eta horietako bakoitzeko: burutze-data, zein aldetan burutu den, jarduketaren deskripzio laburra, burutu duen Enpresa, Entitate edo Erakundea eta galdera honen gai den kontusailetik horretara bideraturiko zenbatekoa.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 10a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# "Mehatxaturiko espezieak leheneratzeko planak" aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Mehatxaturiko espezieak leheneratzeko planak" aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek Ingurugiro Departamentuan 11431-7 aurrekontulerroa sartzen dute, 18 milioi pezetako dotazioa duen "Mehatxaturiko espezieak leheneratzeko planak" izeneko kontusailari dagokiona.

"Ingurugiroaren kudeaketa (30)" programako "Ingurugiroaren kudeaketa (30000)" proiektuaren barnean dagoen kontusail horrek, 31210 sailkapen organikoa, 2276 sailkapen ekonomikoa eta 4421 sailkapen funtzionala dauzka.

1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail hori nola erabiltzen ari den ahalik eta xehetasun gehienekin ezagutzeko asmoz egina dago parlamentuko galdera hau. Horretarako, honako puntu hauei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sartu diren data.

2.-Foru Aginduen zein Ebazpenen bidez, hala nola aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez (beste erakundeetako laguntzak...) eginiko goranzko aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Buruturiko jarduketen zerrenda, eta horietako bakoitzeko: burutze-data, zein aldetan burutu den, jarduketaren deskripzio laburra, burutu duen enpresa, entitate edo erakundea eta galdera honen gai den kontusailetik horretara bideraturiko zenbatekoa.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 10a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## “Naturguneak babesteko eta ibaiak leheneratzeko hitzarmenak” aurrekontu-kontusailari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Naturguneak babesteko eta ibaiak leheneratzeko hitzarmenak” aurrekontu-kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek Ingurugiro Departamentuan sartzen dute 11550-0 zenbakia duen aurrekontu-lerroa, 80 milioi pezetako dotazioa duen “Naturguneak babesteko eta ibaiak leheneratzeko hitzarmenak (**)” kontusailari dagokiona.

“Ingurugiroaren kudeaketa (30)” programako “Ingurugiroaren kudeaketa (30000)” proiektuaren barnean dagoen kontusail horrek, 31210 sailkapen organikoa, 7600 sailkapen ekonomikoa eta 4421 sailkapen funtzionala dauzka.

1997ko ekitaldian zehar laguntza horiek nola erabiltzen ari diren xehetasunez ezagutzeko asmoz egina dago parlamentuko galdera hau. Horretarako, honako puntu hauei buruzko erantzuna eskatzen da:

1.- Kontusail honen erabilera arautzeko aplikagarri diren Foru Lege, Dekretu eta Aginduen zerrenda eta horiek indarrean sartu diren data.

2.-Foru Aginduen zein Ebazpenen bidez, hala nola aportazioen edo aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez (beste erakundeetako laguntzak...) eginiko goranzko aldaketak, 1997ko aurrekontu-ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarri den kopuru osoaren banakatzea, kreditu erabilgarria den ala 1996ko ekitaldian zehar hitzarturiko kreditua den adieraziz.

4.- Buruturiko jarduketen zerrenda, eta horietako bakoitzeko: burutze-data, zein aldetan burutu den, jarduketaren deskripzio laburra, burutu duen enpresa, entitate edo erakundea eta galdera honen gai den kontusailetik horretara bideraturiko zenbatekoa.

5.- Indarreko ekitaldian izapidatutako espedienteekin 1998 eta 1999 urteetarako hartutako gastu-konpromisoa.

Iruñea, 1997ko urriaren 10a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Nekazaritza elikagaien artisau enpresei buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak nekazaritza elikagaien artisau enpresei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Ekainaren 17ko 188/1988 Foru Dekretuaren bidez ekin zion Komunitateko Administrazioak artisautza-sektorearen garapen eta antolamenduari. Dekretu horrek ez zuen arautzen nekazaritza-elikagaien artisau-produkzioa.

Azken urte hauetan, gure Komunitatean orokorki “Artisau Produkzioa” dei genezakeenaren eta, zehazkiago, nekazaritza-elikagaienaren gorakada bat gertatzen ari da.

Nekazaritza-elikagaien artisau-produkzioak Nafarroan duen errotze sakona eta horrek higienean eta osasunean duen eragin berezia direlaeta, Nafarroako Gobernuak maiatzaren 23ko 103/1994 Foru Dekretua onetsi zuen. Dekretu honek “Artisau” eta “Artisau Enpresa” terminoak Nekazaritza Elikagaien sektoreari dagokionean definitzen ditu eta “Nekazaritza Elikagaien Artisau Enpresen Erregistroa” sortu zuen, berau Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi (egun Elikadura) Departamentuari atxikiz.

Beranduago, 1994ko abenduaren 19ko Foru Aginduaren bitartez, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Kontseilariak Nekazaritza Elikagaien Artisau Diploma emateari dagokiona eta aipaturiko Erregistroan inskribatzea arautzen ditu.

Jarduera hau, landa-turismoaren eta bertako produktuen azoken garapenarekin, gero eta garrantzi haundiagoa hartzen ari da Nafarroako landa-ingurunean biztanleen errenten dibertsifikazio eta osaketan; bereziki, hainbat eskualde handitako -nagusiki, mendi aldeko- nekazari eta abeltzainei dagokienean.

Nekazaritza Elikagaien Artisau Enpresei dagokienez, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1.- 103/1994 Dekretuak sorturiko erregistroan gaur sartuta dauden eta aipatu Foru Dekretuari gehituriko Nekazaritza Elikadurako Artisautza Ogibideen Bildumaren arabera sailkatuta dauden nekazaritza elikadurako artisau enpresen zerrenda, horietako bakoitzeko langile-kopuruari buruzko aipamen berezia eginez.

2.- 103/1994 Dekretuko 4.d) artikuluak jasotzen duen salbuespena aplikatzearen ondorioz “nekazaritza elikadurako artisau enpresa” kalifikazioa daukaten enpresen zerrenda (familiaz kanpoko hamar langile finko baino gehiago dituztenak).

3.- 1994ko abenduaren 19ko Foru Agindua onetsi zenez geroztik laguntzak jaso ditzaketen inbertsioen eta nekazaritza elikagaien artisau enpresei emandako laguntzen zerrenda. Foru Agindu horrek enpresa hauentzat aurreikusitako laguntzak emateko prozedura eta irizpideak ezartzen ditu.

Iruñea, 1997ko urriaren 13a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

# Artisau elikagaien produkzioari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak artisau elikagaien produkzioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Artisau elikagaien produkzioa gero eta garrantzi haundiagoa hartzen ari da Nafarroako landa-inguruneko biztanleen errenten dibertsifikazio eta osaketan; batez ere, hainbat eskualde zabaletako -nagusiki, mendi aldeko- nekazari eta abeltzainen errentei dagokienean.

Dituzten ezaugarri zehatzengatik kopuru handitan egin ezin daitezkeen artisau-elikagai anitzek eskaera handia daukate merkatuan, eta honek beharrezkoa egiten du kontsumitzailea babesteko kontrol-neurriak hartzea.

Iruzurren eta bidegabeko konkurrentziaren arriskupean dagoen sektore honek artisau-elikagaien produkzioaren ezarpena errazten ez duen partzialki garaturiko araudi batek okerragotzen dituen baldintzetan produzitu eta merkaturatu behar du.

Artisau elikagaien produkzioari dagokionez, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du artisau elikagaien produkzioari bere alderdi guztiak arautuko dituen "Berme Marka" bat ematea? Baiezkoan, egin al da ildo honetan aurretiazko lanik? Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak marka hori eratu eta arautzea?

2.- Egiten ari al da edo egiteko asmorik al du Nafarroako Gobernuak "Prestakuntza-arau" batzuk, aipaturiko berme-markaren erabilerari buruzkoak? Baiezkoan: zein artisau elikagai produkziotarako? Noizko jotzen du Nafarroako Gobernuak horietako bakoitza prest egongo dela?

3.- Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen al du egoki diren kontrolak ezartzea produkzio hauek beren fabrikazioa eta salmenta bermatuko dituen osasun erregistroan sartu ahal izan daitezen? Baiezkoan: helburu hori erdiesteko zer prozesu jarraitzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak? Aipatu prozesu guztia noizko amaituta egon daitekeela pentsatzen du?

4.- Nafarroako Gobernuak ba al dauka, edo egiten ari al da, edo asmorik ba al du azterketa orokor edo merkaturaturik*** egiteko produkzio hauen merkaturatzeren eta banaketaren problematikari buruz? Baiezkoan: Zein edukirekin? Noizko aurreikusten da hori amaitzea?

Iruñea, 1997ko urriaren 13a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## Nekazaritza Elikaduraren Artisau Batzordea eratzeari buruzko galdera

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nekazaritza Elikaduraren Artisau Batzordea eratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Joan den urriaren 9an, Nafarroako Gobernuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren bidez, laburki Artisau Batzorde baten eraketaren berri ematen zuen prentsa-ohar bat kaleratu zuen.

Aipaturiko oharrean azaltzen denez, Nekazaritza Elikadurako Artisau Enpresen erregistroaren bidez metaturiko esperientziaren ondorioz eratu da Batzordea, eta Nafarroako Gobernuak beren artisautza-lanaren sustapena eta garapena enpresek beraiek kudeatu eta burutu behar dutela pentsatzen duela jakinarazten da.

Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Elikaduraren Artisau Batzordea eratzeari buruz, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1.- Zer dela-eta eratu da aipatu Artisau Batzordea?

2.- Zer pertsonak eta zer entitate, elkarte edo erakunde ordezkatuz osatzen dute Artisau Batzordea? Nola izendatu dituzte?

3.- Zer helburu zehatz erdietsi nahi da Artisau Batzordea eratzearekin?

4.- Produktuen kalitatearen eta osasungarritasunaren kontrola zer jarduketa edo lan-sistemaren bitartez burutzea aurreikusten du Foru Komunitateko Administrazioak? Eta haien barne eta kanpo sustapena?

Iruñea, 1997ko urriaren 13a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## DBHko ikastetxe publikoetan talde bereziak sortzeari buruzko galdera

*ISABEL ARBONIES BERJEMO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak DBHko ikastetxe publikoetan talde bereziak sortzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Isabel Arboniés Bermejo “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Hezkuntza bozeramaleak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

DBHko antolamenduzko neurri eta neurri curricularrei buruzko Foru Dekretuaren babesean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamen-

tuak, 1997/98 ikasturtean, 13 berariazko taldekatze jarri ditu martxan Nafarroako ikastetxe publikoetan.

Aurreaniztasunezko taldekatze edo gela horiek dira portaera nahiz moldagabezia arazoak eduki eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak aldi baterako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle gisa sailkatutakoentzat, eta ikasleen eskubideak bermatzen dituen arauak ezarritako irizpideen menpean daude.

Antolamenduzko neurri eta neurri curricularrei buruzko dekretuaren irizpideen barrenean, talde bereziez arduratuko zen irakasleak izan beharko lituzkeen “profil berezia” eta lan horretarako berariazko prestakuntza aipatzen ziren.

DBHko antolamenduzko neurri eta neurri curricularrei buruzko dekretuaren testuan, alegia, Nafarroako Parlamentuak atzera botatako hartan, asteroko curriculum bat zehazten zen aurreaniztasunezko taldeentzat. Curriculum hori PSNren Gestorarekin hitzartutako testutik kendu zen.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

Hezkuntza zuzendari nagusiak martxoan iragarri bazuen hiru gela berezi sortuko zirela, gutxienez, ikastetxe pribatu itunduetan, zergatik sortzen dira talde bereziak DBHko ikastetxe publikoetan soilik?

Zein dira Hezkuntza Administrazioak hautatu dituen baldintza pedagogikoak eta legezko izapideak ikasleak talde berezietan jartzeko?

Zein da talde berezien asteroko curriculuma?

Aurreaniztasunezko talde horiek ba ote dute leku edo instalazio berezirik curriculum aurreaniztuna garatzeko?

Zein da “profil berezia” Hezkuntza Departamentuarentzat, talde berezien ardura hartuko duten irakasleak izendatzeko orduan?

Aurretiko zein prestakuntza jaso dute irakasleek aurreaniztasunezko gelei buruz?

Zein da behin-behineko irakasleen batezbestekoa gela berezietako irakasleen artean?

Hezkuntza Departamentuak jaso al du idatziz talde berezietara aldatutako ikasleen familia bakoitzaren iritzia?

Gela bereziak Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko jakin batzuetan sortzeko orduan, aintzat hartu al dira kokatuta dauden ikastetxeetako Eskola Kontseiluen aurretiko onespena?

Zein da aldi baterako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen guztirako zenbatekoa irakaskuntza publikoan eta irakaskuntza pribatu itunduan?

Zen da hezkutza premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleen guztirako zenbatekoa, irakaskuntza publikoan eta irakaskuntza pribatu itunduan?

Nolako arreta eskaintzen zaio aniztasunari diru publikoarekin mantendutako ikastetxe pribatuetan?

Iruñean, 1997ko urriaren 13an

Foru Parlamentaria: Isabel Arboniés Bermejo

# Paz de Ziganda ikastolak eskatutako eraikitze-laguntzei buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak Paz de Ziganda ikastolak eskatutako eraikitze-laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak hitzezko erantzuna eskatu du, Osoko Bilkuran emanen zaiona.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristóbal Garcíak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta 187. artikuluek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du ahoz erantzun diezaioten Osoko Bilkuran:

• Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du Paz de Ziganda ikastolako arduradunek eskatutako eraikitze-laguntzei jaramon egitea, Nafarroako 1997ko Aurrekontu Orokorren kontura?

Iruñean, 1997ko urriaren 13a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristóbal García

---

# "Santa Cecilia" sozietatea fundazio bihurtzeari buruzko galdera

*CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak "Santa Cecilia" sozietatea fundazio bihurtzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak hitzezko erantzuna eskatu du, Osoko Bilkuran emanen zaiona.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Carlos Cristóbal Garcíak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta 187. artikuluek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du ahoz erantzun diezaioten Osoko Bilkuran:

• "Santa Cecilia" sozietatea Pablo Sarasate Orkestraren norabidea zuzenduko duen fundazio bihurtzeko konpromisoa hartu zen azken aurrekontu-eztabaidan. Konpromisoaren betetze-maila.

Iruñean, 1997ko urriaren 13a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristóbal García

---

**H Saila:**
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

## Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailea 1998-2005

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, bestak beste:

“Nafarroako Gobernuak 1997ko urriaren 6an hartutako Erabakiaren bidez, hauxe bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan: Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailea 1998-2005.

Horiek horrela, Bozeramaleen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikuluarekin bat

ERABAKI DA:

**Lehena.** Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailea 1998-2005 tramitera onartzea.

**Bigarrena.** Hari buruzko iritzia Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak emango duela xedatzea.

**Hirugarrena.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1997ko urriaren 14a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

(Oharra: Planaren testua Foru Parlamentari jaun-andreen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzen hezkuntza-sistema aztertzeko Batzorde Bereziaren osaketa, antolamendua eta jarduerari buruzko arauak

Nafarroako Parlamentuaren Mahaiak, Bozeramaileen Batzarrak aldeko erabakia hartu ondoren, 1997ko urriaren 14an egindako bilkuran honako Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzen hezkuntza-sistema aztertzeko Batzorde Berezia sortzea.

**2.-** Aipatu Batzorde horren osaketa, antolamendua eta jarduerari buruz ondoren adierazten diren arauak onestea:

**Lehenengoa.-** Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzen hezkuntza-sistema aztertzeko Batzordea sortu da.

**Bigarrena.-** Batzordearen xedea hauxe izango da: Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzen hezkuntza-sistemaren egoera, aukerak eta beharrak aztertzea.

**Hirugarrena.-** Parlamentari Talde bakoitzeko bi ordezkarik osatuko du Batzordea. Batzordeak boto ponderatuaren sistemaren bidez hartuko ditu erabakiak, Batzordeburua hautatzea barne. Talde bakoitzak zenbat Foru Parlamentari, hainbat boto izango ditu Bozeramaile bakoitzak Batzordean. Taldeko zenbat kidek ordezkotza eman, hainbat boto izango ditu Askotariko Taldeko Bozeramaileak, ordezkotza idatziz egiaztatu behar da.

**Laugarrena.-** Batzordea azaroaren 4an eratuko da, 13.00etan.

**Bosgarrena.-** Batzordeburua hautatuko dute eratzeko bilkuran. Batzordeburua bertaratzen ez denean, bere Parlamentari Taldeko beste Batzordekideak ordezkatuko du. Batzorderatzen den Legelaria arituko da Batzordeko idazkari lanetan.

**Seigarrena.-** Parlamentari Taldeek, urriaren 27ko 12:00ak baino lehen jakinarazi beharko diote Biltzarreko Lehendakariari haien kideen izendapena.

**Zazpigarrena.-** Batzorde Bereziak, behar dituen laguntza eta lankidetza eska diezazkioke

Nafarroako Gobernuari. Hala bada, hauxe ere eska diezaioke erakunde horretako Lehendakariari, hots, beharrezko langileak izendatzea eta dagozkion txostenak ematea.

**Zortzigarrena.-** Batzorde Berezi honen antolamendu eta jarduerari dagokienean, arau hauetan aurreikusi ez den guztia Ganbararen Erregelamenduak Batzorde Bereziei buruz ezarritakoarekin bat arautuko da, orohar, eta Ohiko Batzordeei buruz ezarritakoarekin bat, hala behar izanez gero.

**3.-** Erabaki hau Parlamentari Taldeetako Bozeramailei helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1995eko urriaren 15a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

---


HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 5.800 | pta. |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 130 | » . |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 165 | » . |

IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

**NAFARROAKO PARLAMENTUA**

«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»

Arrieta, 12, 3

31002 IRUÑEA

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A.—Artika (Nafarroa).

Lege Gordailua: NA—363-1995

Paper Ekologiko birziklatua